| VII. Deuda con características especiales a corto plazo | | | | | | | | | |

| | | | | | | | | | |
|----------------------------------|----------------------|----------------|-------------|----------------------|----------------|------------|----------------------|----------------|-------------|
| PASIBOA | 11.058.376,00 | 78,96% | 109% | 10.122.718,00 | 81,30% | 90% | 11.301.646,00 | 83,09% | 100% |
| PASIBOA ETA ONDARE GARBIA | 14.005.407,00 | 100,00% | 112% | 12.450.306,00 | 100,00% | 92% | 13.601.493,00 | 100,00% | 100% |



Aktiboa

Partiden balio bertikaletan oinarrituz ikus daiteke enpresaren ondasunen eta eskubideen gehiengoa epe laburrekoa dela, %80a gutxi gora behera. Aktiboaren balioa txikitu egiten da 2012.urtean hurrengo urtean berriro ere hazteko, 20.652.573,78 moneta unitateko aktiboa erakusten delarik 2013. urtean. Hiru urteetan zehar aktibo ez-korrontea txikitu egiten da aktibo korrontea hazten den bitartean.

DYTSAREN kasuan aktiboa nola banatuta dagoen ikustean batzbestez %50 epe laburreko ondasunetan eta %50a epe luzeko ondasunetan banatuta dagoela ikusten dugu. Bi enpresen aktiboak konparatuz ikus daiteke Jesus Oñate y Hermanos-ek aktibo handiagoa duela DYTSA enpresak baino. DYTSA enpresaren aktiboak joera berdina izan duela ikusten dugu, 2012. urtean txikitu egiten da 2013. urtean berriro ere hazteko

Aktibo ez-korrontea

Balio bertikaletan oinarrituz pisurik handiena ibilgetuak duela ikusten dugu enpresan, zehazki ibilgetu materialak. Nahiz eta urte batetik bestera ibilgetu materialak zenbateko txikiagoa aurkezten duen aktibo ez-korrontearen barruan pisu handiena du hirurteetan.

Zenbaki indizeek adierazten dutenez aktibo ez-korrontea txikitzen joan da urte batetik bestera, enpresaren laurden bat izatetik %20 inguru izatera pasa delarik.


DYTSA enpresaren kasuan ikus dezakegu epe luzeko ondasun eta eskubideak aktibo osoaren erdia suposatzen dutela batzbestez hirurteetan. Aktibo hauei dagokienez balio bertikalek erakusten digute gehienbat ibilgetu materialari dagokiola baita ere.

Aktibo korrontea

Epe laburreko eskubide eta ondasunak dira enpresaren aktiboaren gehiengoa. Enpresaren %75a gutxigorabehera epe laburreko ondasun eta eskubideak dira. 3 urteetan zehar zenbaki indizeak aztertuz ikus dezakegu handitu egiten dela aktibo korrontearen zenbatekoa, %80 ingurura heltzen delarik.

Partida garrantzitsuenak izakinak eta bezeroak dira eta 3 urteetan handitu egiten direlarik zenbaki indizeek erakusten duten bezala.

DYTSA enpresaren kasuan ondasun eta eskubideen erdia dira epe laburrekoak eta ondasun hauen gehiengoa izakinak eta bezeroak dira baita ere ikus dezakegunez.



Pasiboa + OG

Pasibo eta ondare garbiari dagokionez, ikusten dugu pisu handiena kanpo finantzazioak duela, hau da, enpresa kanpo finantzazioaz baliatzen da beraren jarduera aurrera eramateko. Ikusten denez enpresaren ondare garbia enpresaren finantzazioaren laurdena da gutxi gorabehera.

DY TSA enpresaren finantzatzeko modua aztertzen badugu datuek erakusten digute pisu handiena kanpo finantzazioak duela baita ere. Ondare garbia %20a da enpresan batazbestez.

Ondare garbia

Ondare garbia eta honen bilakaera aztertzean batazbestez enpresaren finantzazioaren laurdena dela ikusten dugu, %25 inguru.

DY TSA-ren kasuan ere ondare garbia finantzazio iturri txikiena dela ikusten dugu, hiru urteetan joera gorakorra aurkezten duelarik %20 inguru da.

Beraz bi enpresentzat kanpo finantzazioa finantzazio iturri nagusia dela ikus dezakegu.

Pasibo ez-korrontea

Pasibo ez-korrontearen barruan balio bertikal altuena duen partida kreditu erakundeekin zorrak dela ikus dezakegu bi enpresetan.

Epe luzeko kanpo finantzazioaren zenbaki indizeek erakusten digutenez urtero balio absolutua txikitu egin da, hau da, urtero gutxiago finantzatzen da epe luzeko kanpo finantzazioa erabiliz. DY TSA enpresak era balio absolutu txikiagoa erakusten du epe luzeko kanpo finantzazioari dagokionez, %25 batetik %20 batean finantzatzera.

Pasibo korrontea

Aztertu diren bi enpresen finantzazioaren erdia baino gehiago epe laburreko kanpo finantzaziotik dator eta jatorria aztertzean ikusten dugu gehienbat kreditu erakundeetatik eta hornitzaileetatik datorrela balio bertikalei esker. Pasibo ez-korrontean kreditu erakundeek pisu handia zutela ere ikusten genuen, kreditu erakundeak finantza iturri nabarmenak dira bi enpresentzako.




Galdu-irabazi orriaren irakurketa

| AJERAGIKETA JARRAIK | JOH | | | | | | | | |
|---|-----------------------|----------------|-------------|-----------------------|----------------|--------------|-----------------------|----------------|-------------|
| | 2013 | % | ZKI IND | 2012 | % | ZKI IND | 2011 | % | ZKI IND |
| 1.Negozio zifraren zenbateko garbia | 23.968.623,58 | 100,00% | 121% | 19.859.985,98 | 100,00% | 91% | 21.904.719,94 | 100,00% | 100% |
| Salmentak | 23.968.623,58 | 100,00% | 121% | 19.859.985,98 | 100,00% | 91% | 21.904.719,94 | 100,00% | 100% |
| zerbitzuen prestazioa | | | | | | | | | 100% |
| 2.Produktu bukatuen eta ekoizpen-bidean diren produktuen izakinen aldaketa | 343.611,00 | 1,43% | 198% | 173.309,00 | 0,87% | 14% | 1.219.830,00 | 5,57% | 100% |
| 3.Enpresak bere aktiborako egindako lana | 21.301,00 | 0,09% | 164% | 13.025,00 | 0,07% | 15% | 86.178,00 | 0,39% | 100% |
| 4.Hornikuntzak | -13.056.362,14 | 54,47% | 115% | -11.338.280,53 | 57,09% | 88% | -12.934.428,22 | 59,05% | 100% |
| Salgaien kontsumoa | | | | | | | | | |
| Materia prima eta beste materialen kontsumoa | -13.056.362,14 | 54,47% | 115% | -11.338.280,53 | 57,09% | 88% | -12.934.428,22 | 59,05% | 100% |
| Beste enpresek egindako lanak | | | | | | | | | |
| Salgai, materia prima eta beste hornikuntzen narriadura | | | | | | | | | |
| 5.Ustiapeneko bestelako sarrerak | 179.865,93 | 0,75% | 89% | 202.427,09 | 1,02% | 87% | 233.858,93 | 1,07% | 100% |
| Korrante antolakuntzaren sarrerak | | | | | | | | | |
| Ustiapenagatik subentzioak | 179.865,93 | 0,75% | 89% | 202.427,09 | 1,02% | 87% | 233.858,93 | 1,07% | 100% |
| 6.Pertsonal Gastuak | -3.947.887,42 | 16,47% | 97% | -4.073.512,51 | 20,51% | 97% | -4.206.746,57 | 19,20% | 100% |
| Soldatak | -3.028.106,48 | 12,63% | 97% | -3.129.222,86 | 15,76% | 96% | -3.247.216,48 | 14,82% | 100% |
| Karga sozialak | -919.780,94 | 3,84% | 97% | -944.289,65 | 4,75% | 98% | -959.530,09 | 4,38% | 100% |
| Hornidurak | | | | | | | | | |
| 7.Ustiapeneko bestelako gastuak | -5.212.078,77 | 21,75% | 126% | -4.142.903,65 | 20,86% | 93% | -4.471.457,72 | 20,41% | 100% |
| Kanpo zerbitzuak | -5.090.514,27 | 21,24% | 126% | -4.027.074,94 | 20,28% | 94% | -4.303.987,50 | 19,65% | 100% |
| Tributuak | -40.095,33 | 0,17% | 83% | -48.055,46 | 0,24% | 131% | -36.644,16 | 0,17% | 100% |
| Merkat. eragiketarako galerak, narriad, honid-aldak | | | 0% | 34.755,92 | 0,18% | 100% | -34.755,92 | 0,16% | 100% |
| Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | -81.469,17 | 0,34% | 79% | -102.529,17 | 0,52% | 107% | -96.070,14 | 0,44% | 100% |
| 8.Ibilgetuaren amortizazioa | -885.207,33 | 3,69% | 98% | -906.860,08 | 4,57% | 77% | -1.178.046,88 | 5,38% | 100% |
| 9.Dirulaguntzen esleitzea | 25.579,72 | 0,11% | 100% | 25.579,73 | 0,13% | 74% | 34.373,52 | 0,16% | 100% |
| 10.Hornidura soberakinak | | | | | | | | | |
| 11.Ibilgetuaren narriadura eta inorenganaketaren emaitza | -175.286,56 | 0,73% | | | | | | | |
| Narriadura eta galerak | | | | | | | | | |
| Bestelako emaitzak | -175.286,56 | 0,73% | | | | | | | |
| 12.Negozio konbinakengatik emaitza negatiboak | | | | | | | | | |
| 13.Bstelako emaitzak | 1.633,11 | 0,01% | -29% | -5.583,85 | 0,03% | 1364% | -409,37 | 0,00% | 100% |
| A.1) USTIAPENENKO EMAITZA | 1.263.792,12 | 5,27% | 655% | -192.813,82 | 0,97% | 28% | 687.871,63 | 3,14% | 100% |
| 14.Sarrera finantzarioak | 9.918,63 | 0,04% | 78% | 12.668,60 | 0,06% | 186% | 6.803,41 | 0,03% | 100% |
| Partizipazioak eta ondare tresnak | | | | | | | | | |
| Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak | 9.918,63 | 0,04% | 78% | 12.668,60 | 0,06% | 186% | 6.803,41 | 0,03% | 100% |
| Izaera finantzarioko subentzioen esleitzea | | | | | | | | | |
| 15. Gastu finantzarioak | -430.602,63 | 1,80% | 93% | -461.903,53 | 2,33% | 115% | -400.185,54 | 1,83% | 100% |
| Taldeko enpresekin zorrak | | | | | | | | | |
| hirugarrenekin zorrak | -430.602,63 | 1,80% | 93% | -461.903,53 | 2,33% | 115% | -400.185,54 | 1,83% | 100% |
| Horniduren aktualizazioagatik | | | | | | | | | |
| 16.Finantza tresnen arrazoizko balioaren aldaketak | 1.335,51 | 0,01% | | 0,00 | 0,00% | 0% | 1.396,38 | 0,01% | 100% |
| Negozioazio-kartera eta bestelakoak | 1.335,51 | 0,01% | | | 0,00% | 0% | 1.396,38 | 0,01% | 100% |
| Aktibo finantzario salgarriengatik ekitaldiko emaitzara egotzitakoa | | | | | | | | | |
| 17.Kanbio diferentziak | 116,20 | 0,00% | | | 0,00% | 0% | 154,24 | 0,00% | 100% |
| 18.Balio narriadura eta ibilgetua besterenganatzeagatik emaitza | 0,00 | 0,00% | | 0,00 | 0,00% | 0% | -3.453,34 | 0,02% | 100% |
| Narriadura eta galerak | | | | | 0,00% | 0% | -3.453,34 | 0,02% | 100% |
| Besterenganatzearengatik emaitzak | | | | | | | | | |
| A.2) EMAITZA FINANTZARIOA | -419.232,29 | 1,75% | 93% | -449.234,93 | 2,26% | 114% | -395.284,85 | 1,80% | 100% |
| A.3)ZERGA AURREKO EMAITZA | 844.559,83 | 3,52% | 132% | -642.048,75 | 3,23% | 219% | 292.586,78 | 1,34% | 100% |
| 20.mozkinen gaineko zerga | 0,00 | 0,00% | 0% | 122.480,37 | 0,62% | 639% | 19.154,90 | 0,09% | 100% |
| A.4)Eragiketa jarraien ekitaldiko emaitza | 844.559,83 | 3,52% | 163% | -519.568,38 | 2,62% | 167% | 311.741,68 | 1,42% | 100% |
| B)Etendako eragiketak | | | | | | | | | |
| 21 Etendako eragiketetatik datorren emaitza | 76.748,81 | 0,32% | | | 0,00% | | | 0,00% | 100% |
| A.5)EKITALDIKO EMAITZA | 921.308,64 | 3,84% | 177% | -519.568,38 | 2,62% | 167% | 311.741,68 | 1,42% | 100% |



| DYTSA | | | | | | | | | |
|---|----------------------|----------------|-------------|----------------------|----------------|---------------|-----------------------|----------------|-------------|
| A)ERAGIKETA JARRAIK | 2013 | % | ZKI IND | 2012 | % | ZKI IND | 2011 | % | ZKI IND |
| 1.Negozio zifraren zenbateko garbia | 17.932.818,00 | 100,00% | 108% | 16.652.060,00 | 100,00% | 86% | 19.385.478,00 | 100,00% | 100% |
| Salmentak | 17.932.818,00 | 100,00% | 108% | 16.652.060,00 | 100,00% | 86% | 19.385.478,00 | 100,00% | 100% |
| zerbitzuen prestazioa | | | | | | | | | |
| 2.Produktu bukatuen eta ekoizpen-bidean diren produktuen izakinen aldaketa | -51.101,00 | 0,28% | 36% | 141.733,00 | 0,85% | 27% | 534.264,00 | 2,76% | 100% |
| 3.Enpresak bere aktiborako egindako lana | 86.647,00 | 0,48% | 81% | 107.126,00 | 0,64% | | | 0,00% | 100% |
| 4.Hornikuntzak | -9.327.176,00 | 52,01% | 109% | -8.534.163,00 | 51,25% | 82% | -10.429.323,00 | 53,80% | 100% |
| Salgaien kontsumoa | | | | | | | | | |
| Materia prima eta beste materialen kontsumoa | -8.450.501,00 | 47,12% | 108% | -7.822.696,00 | 46,98% | 82% | -9.527.570,00 | 49,15% | 100% |
| Beste enpresek egindako lanak | -876.675,00 | 4,89% | 123% | -711.467,00 | 4,27% | 79% | -901.753,00 | 4,65% | 100% |
| Salgai,materia prima eta beste hornikuntzen narriadura | | | | | | | | | |
| 5.Ustiapeneko bestelako sarrerak | 1.822,00 | 0,01% | 100% | 1.822,00 | 0,01% | 100% | 1.822,00 | 0,01% | 100% |
| Korrante antolakuntzaren sarrerak | 1.822,00 | 0,01% | 100% | 1.822,00 | 0,01% | 100% | 1.822,00 | 0,01% | 100% |
| Ustiapenagatik subentzioak | | | | | | | | | |
| 6.Pertsonal Gastuak | -4.137.009,00 | 23,07% | 101% | -4.114.617,00 | 24,71% | 98% | -4.180.699,00 | 21,57% | 100% |
| Soldatak | -3.154.509,00 | 17,59% | 99% | -3.176.433,00 | 19,08% | 98% | -3.237.273,00 | 16,70% | 100% |
| Karga sozialak | -982.500,00 | 5,48% | 105% | -938.184,00 | 5,63% | 99% | -943.426,00 | 4,87% | 100% |
| Homidurak | | | | | | | | | |
| 7.Ustiapeneko bestelako gastuak | -3.689.221,00 | 20,57% | 110% | -3.363.894,00 | 20,20% | 94% | -3.596.346,00 | 18,55% | 100% |
| Kanpo zerbitzuak | -3.575.693,00 | 19,94% | 110% | -3.259.307,00 | 19,57% | 91% | -3.565.335,00 | 18,39% | 100% |
| Tributuak | -31.921,00 | 0,18% | 99% | -32.318,00 | 0,19% | 104% | -31.011,00 | 0,16% | 100% |
| Merkat. eragiketako galerak,narriad,honid-aldak | | | | | | | | | |
| Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | -81.607,00 | 0,46% | 113% | -72.269,00 | 0,43% | | | 0,00% | 100% |
| 8.Ibilgetuaren amortizazioa | -619.889,00 | 3,46% | 96% | -648.453,00 | 3,89% | 77% | -839.146,00 | 4,33% | 100% |
| 9.Dirulaguntzen esleitzea | | | | | | | | | |
| 10.Hornidura soberakinak | | | | | | | | | |
| 11.Ibilgetuaren narriadura eta inorenganaketaren emaitza | 44.274,00 | 0,25% | 233% | 18.972,00 | 0,11% | | | | |
| Narriadura eta galerak | | | | | | | | | |
| bestelako emaitzak | 44.274,00 | 0,25% | 233% | 18.972,00 | 0,11% | | | | |
| 12.Negozio konbinakengatik emaitza negatiboak | | | | | | | | | |
| 13.Bestelako emaitzak | | | | | | 0% | 60.435,00 | 0,31% | 100% |
| A.1) USTIAPENKO EMAITZA | 241.165,00 | 1,34% | 93% | 260.586,00 | 1,56% | 28% | 936.485,00 | 4,83% | 100% |
| 14.Sarrera finantzarioak | 4.164,00 | 0,02% | 56% | 7.471,00 | 0,04% | 75% | 9.930,00 | 0,05% | 100% |
| Partizipazioak eta ondare tresnak | | | | | | | | | |
| Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak | 4.164,00 | 0,02% | 56% | 7.471,00 | 0,04% | 75% | 9.930,00 | 0,05% | 100% |
| Izaera finantzarioko subentzioen esleitzea | | | | | | | | | |
| 15. Gastu finantzarioak | -312.639,00 | 1,74% | 92% | -338.801,00 | 2,03% | 102% | -333.372,00 | 1,72% | 100% |
| Taldeko enprekin zorrak | | | | | | | | | |
| hirugarrenekin zorrak | -312.639,00 | 1,74% | 92% | -338.801,00 | 2,03% | 102% | -333.372,00 | 1,72% | 100% |
| Homiduren aktualizazioagatik | | | | | | | | | |
| 16.Finantza tresnen arazoizko balioaren aldaketak | -67,00 | | | | | | | | |
| Negozioazio-kartera eta bestelakoak | -67,00 | | | | | | | | |
| Aktibo finantzario salgarriengatik ekitaldiko emaitzara egotzitakoa | | | | | | | | | |
| 17.Kanbio diferentziak | -9.436,00 | 0,05% | 225% | -4.192,00 | 0,03% | 169% | -2.483,00 | 0,01% | 100% |
| 18.Balio narriadura eta ibilgetua besterenganatzeagatik emaitza | | | | | | | | | |
| Narriadura eta galerak | | | | | | | | | |
| Besterenganatzearengatik emaitzak | | | | | | | | | |
| A.2) EMAITZA FINANTZARIOA | -317.978,00 | 1,77% | 95% | -335.522,00 | 2,01% | 103% | -325.925,00 | 1,68% | 100% |
| A.3)ZERGA AURREKO EMAITZA | -76.813,00 | 0,43% | 103% | -74.936,00 | 0,45% | -12% | 610.560,00 | 3,15% | 100% |
| 20.mozkinen gaineko zerga | 192.185,00 | 1,07% | 192% | 100.220,00 | 0,60% | -1310% | -7.652,00 | 0,04% | 100% |
| A.4)Eragiketa jarraien ekitaldiko emaitza | 115.372,00 | 0,64% | 456% | 25.284,00 | 0,15% | 4% | 602.908,00 | 3,11% | 100% |
| B)Etendako eragiketak | | | | | | | | | |
| 21 Etendako eragiketetatik datorren emaitza | | | | | | | | | |
| A.5)EKITALDIKO EMAITZA | 115.372,00 | 0,64% | 456% | 25.284,00 | 0,15% | 4% | 602.908,00 | 3,11% | 100% |



Jesús Oñate y Hermanos-en galdu-irabazi orria aztertuz ikusten dugu 2012. urtean beherakada bat ematen dela ekitaldiko emaitzan, negatiboa izatera pasatzen delarik.

2013. urtean ordea ekitaldiko emaitza asko hobetzen du enpresak. Emaitza negatiboa erakustetik aztertutako hiru urteetako emaitza onena erakustera pasatzen da. Datuetan oinarrituz 2012. urtea aztertu direnen artean gogorra izan dela baieztatu dezakegu.

Salmenten bilakaera aztertzen badugu ikusten dugu 2011. urtetik 2012ra beherakada bat jasaten dutela 2013. urtean berriro ere hazteko.

Ikus dezakegunez Jesús Oñate y Hermanos 2012. urtean ustiapeneko emaitza negatibo bat erakusten du, -192.813'12 moneta unitatekoa. Bere jarduerarekin dirua galtzen duela ikusten dugu.

2013. urtean ordea ustiapeneko emaitza positiboa bakarrik ez hiru urteetako emaitza handiena erakusten du.

Emaitza finantzarioa aztertzen badugu hiru urteetan antzera mantendu dela ikus dezakegu.

DYTSA enpresaren ekitaldiko emaitza aztertzen badugu 2012. urtean honek ere ekitaldiko emaitzan beherakada bat erakusten du. DYTSA enpresaren kasuan ordea ekitaldiko emaitza positibo bat erakusten jarraitzen du.

2013. urtean hobekuntza bat ematen da ekitaldiko emaitzan baina Jesús Oñate y Hermanos enpresak erakusten duena baino apalagoa.

DYTSA enpresaren salmentek joera antzekoa jarraitzen dute baina bolumen txikiago batean.

DYTSA enpresaren kasuan ere ustiapen emaitzan beherakada bat eman dela ikusten dugu 2012. urtean baina ez da negatiboa izatera iristen. 2013. urtean emaitza hau antzera mantentzen da.

Emaitza finantzarioa aztertuz hiru urteetan antzera mantentzen dela ikus dezakegu.

Galdu irabazi orriaren irakurketa azkar baten ondoren politikak erabiliko dira azterketa sakonago bat egiteko.



Bi enpresen salmenten joera ezagutzen dugularik azter dezagun orain produktuarekin lortzen duten merkataritza marjin gordina. Azterketa hau egiteko merkatal politikaz baliatuko gara.

| JOH | | | | | | | | | |
|---------------------|---------------------|------------|-------------|---------------------|-----------|-------------|---------------------|-----------|-------------|
| MERKATAL POLITIKA | 2013 | % | zki ind | 2012 | % | zki ind | 2011 | % | zki ind |
| Salmenta garbiak | 23.968.623,58 | 100% | 121% | 19.859.985,98 | 100% | 91% | 21.904.719,94 | 100% | 100% |
| Salmenten kostua* | -21.139.243,06 | 88% | 113% | -18.723.509,48 | 94% | 90% | -20.854.791,57 | 95% | 100% |
| MMG | 2.829.380,52 | 12% | 249% | 1.136.476,50 | 6% | 108% | 1.049.928,37 | 5% | 100% |
| MMG aldaketa | 1.692.904,02 | | | 86.548,13 | | | -515.019,62 | | |
| (S1-SO)M0(%) | 235.114,47 | | | -98.007,38 | | | 141.036,89 | | |
| (M1-MO)S1 | 1.457.789,55 | | | 184.555,51 | | | -656.056,52 | | |

| DYTSA | | | | | | | | | |
|---------------------|---------------------|------------|-------------|---------------------|------------|------------|---------------------|------------|-------------|
| MERKATAL POLITIKA | 2013 | % | zki ind | 2012 | % | zki ind | 2011 | % | ZKI IND |
| Salmenta garbiak | 17.932.818,00 | 100% | 108% | 16.652.060,00 | 100% | 86% | 19385478 | 100% | 100% |
| Salmenten kostua* | -14.952.137,06 | 83% | 107% | -14.016.503,67 | 84% | 87% | -16022416,54 | 83% | 100% |
| MMG | 2.980.680,94 | 17% | 113% | 2.635.556,33 | 16% | 78% | 3.363.061,46 | 17% | 100% |
| MMG aldaketa | 345.124,60 | | | -727.505,13 | | | | | |
| (S1-SO)M0(%) | 202.708,25 | | | -474.203,05 | | | | | |
| (M1-MO)S1 | 142.416,36 | | | -253.302,08 | | | | | |

*Salmenta kostuak kalkulatzeko orduan fiziozko piezak ekoizteko beharrezkoak diren faktore guztiak hartu dira kontuan: Hornikuntzak, pertsonal gastua, ustiapeneko bestelako gastuak eta amortizazioak. Gainera enpresako langileagoaren %100 ez dago pieza hauek ekoiztera zuzendua, %92a gutxi gorabehera baizik, memorian azaltzen den bezala. Hau dela eta kostua portzentaje honegatik biderkatu da.


Taulak erakusten duenez Jesus Oñate y Hermanos enpresak lortzen duen merkataritza marjin gordina hazi egin da aztertutako hiru urteetan. Lehen aipatu bezala 2012. urtean salmentak jaitsi egin dira baina nahiz eta Jesus Oñate y Hermanos enpresak gutxiago saldu duen 2012. urtean salmenta hauen kostua modu nabariago batean jaitsi egin da eta honegatik marjin hobetza lortu da urte honetan. Aipatu beharra dago marjina hobetu dela bai baina DYTSA enpresarena baino txikiagoa izaten jarraitzen duela.

2013. urtean marjina hobetzen duela ikus dezakegu. Atentzioa deitzen du enpresak izan duen hobekuntza merkataritza marjin gordinen, gutxi gorabehera bikoiztu egiten duelarik. Marjina hobetzaaren arrazoi nagusia enpresak izan duen salmenten hazkuntzan aurkitzen da merkatal politikak erakusten digun bezala. Salmentak hauen kostua baino modu nabariagoan haztean enpresak marjina hobetza ekarri du.

DYTSA enpresaren merkatal politikaren taula aztertzean ikusten dugu DYTSA enpresak marjin handiagoa duela hiru urteetan. Aztertutako hiru urteetan merkataritza margin gordinaren ehunekoak Jesus Oñate y Hermanos enpresaren gainetik aurkitzen da.

Hala ere 2012. Urtean DYTSA enpresak marjin murrizketa izan du Jesus Oñate y Hermanos enpresak hobetu egin duen bitartean.

2013. urtean DYTSA marjina hobetzen du baita ere baina Jesus Oñate y Hermanos enpresak baino modu apalagoan. Marjina hobetzaaren arrazoi nagusia enpresak izan duen salmenten hazkuntzan aurkitzen da enpresa honetan ere.



Ustiapen emaitza aztertzean ikusten dugu 2012. urtean enpresak bere jarduerarekin dirua galtzera pasatzen dela. Galdu irabazi orria aztertzean ikus dezakegunez gastuak antzera mantentzen dira eta hauen balio bertikalak handiagoak dira. Hau da, nahiz eta gastu gehienak txikitu egin diren balio absolututan salmentekiko gastu handiagoa suposatzen dute. Hau dela eta 2012. urtean enpresak ustiapeneko emaitza negatibo bat aurkezten du.

2013. urtean ustiapen emaitza modu nabarian hazten da, negatiboa izatetik hiru urteetako emaitza onena erakustera pasatzen delarik. Aldaketa hau salmenten hobekuntzak ekarri du. Ustiapen emaitza osatzen duten kostuak baino modu nabariagoan hazten dira salmentak eta honek merkataritza marjin gordinaren handitzea ekarri du. Honi esker bere jarduerak sortzen dituen gastuei aurre egiteko kapazitate handiagoa izan du.

DYTSA enpresaren ustiapen emaitza ere jaitsi egiten da 2012.urtean baina ez da negatiboa izatera iristen.

2013. urtean jaisten jarraitzen duela ikusten dugu nahiz eta modu apal batean izan den, ustiapen emaitza osatzen duten kostuak salmentak baino proportzio handiago batean hazten direlako.

Balio bertikalean oinarrituz ikusten dugu enpresaren salmenta kostuen gehiengoa hornikuntzek osatzen dutela, zehazki lehengai eta beste produktuen kontsumoak, %60ko batazbesteko balio bertikala erakusten duelarik hiru urteetan. Honen atzetik salmenta kostuen barruan balio bertikal altuena erakusten duten partidak pertsonal gastuak eta ustiapeneko bestelako gastuak direla ikus dezakegu batazbesteko %20ko pisuarekin partida bakoitza.



Pertsonal gastuaren bilakaera aztertzeko pertsonal politika erabiliko da.

| JOH | | | | | | |
|-----------------------------------|-------------------|----------------|-------------------|----------------|-------------------|----------------|
| PERTSONAL POLITIKA | 2013 | ZKI IND | 2012 | ZKI IND | 2011 | ZKI IND |
| Salmenta garbiak | 23.968.623,58 | 121% | 19.859.985,98 | 91% | 21.904.719,94 | 100% |
| Pertsonal gastua | -3.947.887,42 | 97% | -4.073.512,51 | 97% | -4.206.746,57 | 100% |
| Langile kopurua | 85,47 | 98% | 87,10 | 112% | 77,62 | 100% |
| Salmentak/Pertsonal gastua | 6,07 | 125% | 4,88 | 94% | 5,21 | 100% |
| Salmetak/langile kopurua | 280.433,18 | 123% | 228.013,62 | 81% | 282.204,59 | 100% |

| DYTSA | | | | | | |
|-----------------------------------|-------------------|----------------|-------------------|----------------|-------------------|----------------|
| PERTSONAL POLITIKA | 2013 | ZKI IND | 2012 | ZKI IND | 2011 | ZKI IND |
| Salmenta garbiak | 17.932.818,00 | 108% | 16.652.060,00 | 86% | 19.385.478,00 | 100% |
| Pertsonal gastua | -4.137.009,00 | 101% | -4.114.617,00 | 98% | -4.180.699,00 | 100% |
| Langile kopurua | 124,00 | 96% | 129,00 | 100% | 129,00 | 100% |
| Salmentak/Pertsonal gastua | 4,33 | 107% | 4,05 | 87% | 4,64 | 100% |
| Salmetak/langile kopurua | 144.619,50 | 112% | 129.085,74 | 86% | 150.275,02 | 100% |

Pertsonal gastuaren bilakaera aztertzen badugu ikus dezakegu hiru urteetan zehar murrizten joan dela Jesus Oñate y Hermanos enpresaren kasuan, nahiz eta modu ez oso nabarian izan.

DYTSA enpresaren pertsonal gastuaren bilakaera aztertzen badugu 2012. urtean murriztu egiten dela ikus dezakegu 2013. urtean berriro ere hazteko.

Egindako kalkuluek erakusten dutenez aztertutako hiru urteetan pertsonal gastuan inbertitzen den moneta unitate bakoitzeko lortzen den salmentei dagokienez V itxurako joera bat ematen da Jesus Oñate y Hermanos enpresaren kasuan.

2012. urtean beherakada bat ematen da salmenten beherakadak bultzatuta.

2013. urtean ordea salmentak pertsonal gastua baino modu nabariagoan hazten da eta ratioak emaitza handiagoa erakusten du, hau da, pertsonal gastuan inbertitzen den moneta unitate bakoitzeko gehiago saltzen da.

DYTSA enpresak aurkezten dituen emaitzak aztertzean gauza bera gertatzen dela ikus dezakegu. 2012. urtean emaitza txikitu egiten da salmenten beherakadak bultzatuta gehienbat 2013. urtean berriro ere hazteko.

Langile bakoitzeko salmentak aztertzean, 2012. urtean beherakada bat erakusten du ratio honen emaitzak, langile bakoitzeko gutxiago saltzen da urte honetan.

2013. urtean ordea emaitza hobea erakusten du enpresak, hau da, langile bakoitzeko gehiago saltzen da.

DYTSA enpresaren emaitzek joera berdina erakusten dutela ikus dezakegu langile bakoitzeko salmentei dagokionean.



Ikusten dugunez bi enpresek joera berdina erakusten dute pertsonal gastuan inbertitzen den moneta unitate bakoitzeko lortzen den salmentei dagokienean eta langile bakoitzeko lortzen diren salmentei dagokienean. Aztertutako hiru urteetan Jesus Oñate y Hermanos gainetik dagoela ikus dezakegu, enpresak duen salmenta bolumena DY TSA enpresarena baino handiagoa delako batez ere.

Ustiapeneko bestelako gastuen bilakaera aztertzen badugu bi enpresek joera berdina erakusten dute.

2012. urtean ustiapeneko gastuak txikitu egiten dira bi kasuetan baina galdu irabazi orria aztertzen badugu ikusten dugu balio bertikalak handitu egiten direla, hau da, salmentekiko gastu handiago suposatzen dutela.

2013. urtean hazi egiten dira bai bertikaliki eta bai horizontalki bi enpresetan. Ustiapeneko bestelako gastuak salmentekiko kostu handiago suposatu dute bi enpresentzat hiru urteetan zehar.

| JOH | | | | | | |
|-----------------------------------|---------------|---------------|---------------|----------------|---------------|-------------|
| <i>POLITIKA FINANTZARIOA</i> | 2013 | ZKI IND | 2012 | ZKI IND | 2011 | ZKI IND |
| Gastu finantzarioak | 430.602,63 | 93,22% | 461.903,53 | 115,42% | 400.185,54 | 100% |
| Zorrak | 14.946.458,06 | 99,48% | 15.025.144,48 | 103,30% | 14.545.349,27 | 100% |
| Gastu finantzarioak/Zorrak | 2,88% | 93,71% | 3,07% | 111,74% | 2,75% | 100% |

| DY TSA | | | | | | |
|-----------------------------------|---------------|---------------|---------------|----------------|---------------|----------------|
| <i>POLITIKA FINANTZARIOA</i> | 2013 | ZKI IND | 2012 | ZKI IND | 2011 | ZKI IND |
| Gastu finantzarioak | 312.639,00 | 92,28% | 338.801,00 | 101,63% | 333.372,00 | 100% |
| Zorrak | 11.058.376,00 | 109,24% | 10.122.718,00 | 89,57% | 11.301.646,00 | 100% |
| Gastu finantzarioak/Zorrak | 2,83% | 84,47% | 3,35% | 113,46% | 2,95% | 100,00% |

Emitza finantzarioari dagokionez ikusten dugu emitza finantzario negatiboa aurkezten duela enpresak hiru urteetan. Egitura aztertzean honen jatorria enpresak dituen gastu finantzarioetan aurkitzen direla ikusten dugu. Egoera balantzearen azterketan ikusi dugun bezala enpresak kanpo finantzazioa beharrezkoa du eta honek azaltzen ditu gastu finantzarioak.

DY TSA enpresaren kasuan ikusten dugu berdina gertatzen dela. Emitza finantzarioaren zatirik handiena finantza gastuei dagokie. Egoera balantzea aztertu dugunean ikusi dugun bezala DY TSA enpresa ere kanpo finantzazioaz baliatzen da. Jesus Oñate y Hermanos enpresa baino modu handiagoan finantzatzen da zorraren zenbatekoak erakusten duen bezala, gastu finantzarioak azalduz.



Errotazio fondoaren irakurketa

| JOH | | | | | |
|---|----------------------|---------------------|----------------------|--------------------|----------------------|
| EF | 2013 | Aldaketa | 2012 | Aldaketa | 2011 |
| Izakinak | 9.746.203,00 | 217.291,00 | 9.528.912,00 | 329.752,00 | 9.199.160,00 |
| Bezeroak | 5.917.131,86 | 1.247.620,87 | 4.669.510,99 | 169.916,24 | 4.499.594,75 |
| Zirkulatuzailearen finantz behar gordina | 15.663.334,86 | 1.464.911,87 | 14.198.422,99 | 499.668,24 | 13.698.754,75 |
| Hornitzaileak | 6.472.130,91 | 150.518,22 | 6.321.612,69 | 983.660,36 | 5.337.952,33 |
| Ustiapeneko EF ren oinarritzko beharra | 9.191.203,95 | 1.314.393,65 | 7.876.810,30 | -483.992,12 | 8.360.802,42 |
| Ustiapeneko bestelako AK | 340.181,34 | -182.038,65 | 522.219,99 | 272.326,33 | 249.893,66 |
| Ustiapeneko bestelako PK | 373.152,98 | 56.854,12 | 316.298,86 | -12.308,33 | 328.607,19 |
| Ustiapeneko EF beharra | 9.158.232,31 | 1.075.500,88 | 8.082.731,43 | -199.357,46 | 8.282.088,89 |
| Bestelako AK | 201.335,51 | -372.595,81 | 573.931,32 | -471.407,50 | 1.045.338,82 |
| Bestelako PK | 7.025.328,39 | 634.292,25 | 6.391.036,14 | -150.576,23 | 6.541.612,37 |
| Diruzaintza | 378.446,45 | 320.706,30 | 57.740,15 | 51.549,25 | 6.190,90 |
| EF | 2.712.685,88 | 389.319,12 | 2.323.366,76 | -468.639,48 | 2.792.006,24 |
| AK-PK | 2.712.685,88 | 389.319,12 | 2.323.366,76 | -468.639,48 | 2.792.006,24 |

| | | | | | |
|-----------|---------------|--------------|---------------|---------------|---------------|
| Erosketak | 12.880.130,14 | 1.698.292,61 | 11.181.837,53 | -1.453.635,69 | 12.635.473,22 |
|-----------|---------------|--------------|---------------|---------------|---------------|


| BBHA | 2013 | Aldaketa | 2012 | Aldaketa | 2011 |
|---|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| d1= Lehengaien bb / lehengaien kontsumoa *360 | 121,61 | -17,95 | 139,56 | 17,96 | 121,60 |
| d2= Bideango produktuen bb/Ekoizpen kostua *360 | | | | | |
| d3= Produktu bukatuen bb/Salmenta kostua *360 | 90,36 | -5,99 | 96,35 | 31,07 | 65,27 |
| d4=Bezeroen bb/Salmenta garbiak *360 | 65,71 | -34,85 | 100,56 | 37,17 | 63,39 |
| BBHA | 277,68 | -58,79 | 336,46 | 86,20 | 250,26 |
| d5= Hornitzaileen bb/erosketa garbiak *360 | 147,76 | -91,45 | 239,22 | 116,56 | 122,66 |
| UEFOB | 129,91 | 32,67 | 97,25 | -30,36 | 127,61 |

| DYTSA | | | | | |
|---|----------------------|--------------------|----------------------|--------------------|---------------------|
| EF | 2013 | Aldaketa | 2012 | Aldaketa | 2011 |
| Izakinak | 2.983.461,00 | 173.115,00 | 2.810.346,00 | -323.468,00 | 3.133.814,00 |
| Bezeroak | 2.643.038,00 | 139.735,00 | 2.503.303,00 | -297.681,00 | 2.800.984,00 |
| Zirkulatuzailearen finantz behar gordina | 5.626.499,00 | 312.850,00 | 5.313.649,00 | -621.149,00 | 5.934.798,00 |
| Hornitzaileak | 4.289.020,00 | 773.482,00 | 3.515.538,00 | -704.013,00 | 4.219.551,00 |
| Ustiapeneko EF ren oinarritzko beharra | 1.337.479,00 | -460.632,00 | 1.798.111,00 | 82.864,00 | 1.715.247,00 |
| Ustiapeneko bestelako AK | 331.406,00 | 224.723,00 | 106.683,00 | -61.273,00 | 167.956,00 |
| Ustiapeneko bestelako PK | 757.078,00 | -10.853,00 | 767.931,00 | 204.972,00 | 562.959,00 |
| Ustiapeneko EF beharra | 911.807,00 | -225.056,00 | 1.136.863,00 | -183.381,00 | 1.320.244,00 |
| Bestelako AK | 162.148,00 | -29.411,00 | 191.559,00 | -180.620,00 | 372.179,00 |
| Bestelako PK | 3.497.191,00 | 119.904,00 | 3.377.287,00 | 138.481,00 | 3.238.806,00 |
| Diruzaintza | 907.531,00 | 558.813,00 | 348.718,00 | -446.159,00 | 794.877,00 |
| EF | -1.515.705,00 | 184.442,00 | -1.700.147,00 | -948.641,00 | -751.506,00 |
| AK-PK | -1.515.705,00 | 184.442,00 | -1.700.147,00 | -948.641,00 | -751.506,00 |

| | | | |
|-----------|--------------|--------------|--------------|
| Erosketak | 8.704.830,00 | 1.318.494,00 | 7.386.336,00 |
|-----------|--------------|--------------|--------------|

| BBHA | 2013 | Aldaketa | 2012 |
|---|---------------|---------------|---------------|
| d1= Lehengaien bb / lehengaien kontsumoa *360 | 33,32 | -8,22 | 41,53 |
| d2= Bideango produktuen bb/Ekoizpen kostua *360 | 41,27 | -3,09 | 44,36 |
| d3= Produktu bukatuen bb/Salmenta kostua *360 | 8,19 | 1,08 | 7,11 |
| d4=Bezeroen bb/Salmenta garbiak *360 | 42,69 | -4,69 | 47,39 |
| BBHA | 125,46 | -14,92 | 140,38 |
| d5= Hornitzaileen bb/erosketa garbiak *360 | 133,38 | -22,41 | 155,78 |
| UEFOB | -7,92 | 7,48 | -15,40 |

*2013 eta 2012 urteekin egin da azterketa 2011. Urteko kontuak ez nituelako eta beraz ezin nuen batzbestekorik kalkulatu, izan ere SABI plataforman izakinak ez daude desberdinduta hauen motagatik.



Egindako kalkuluek erakusten diguten bezala Jesus Oñate y Hermanos enpresak errotazio fondo positibo bat erakusten du aztertu diren hiru urteetan. Honek esan nahi du enpresak epe laburreko ondasun eta eskubideen zati bat epe luzeko finantzazioarekin finantzatzen duela, segurtasun finantzarioa adieraziz.

Errotazio fondoaren taularen ordena jarraituz zirkulatuzailearen finantza behar gordinaren emaitza aztertuko da. Zenbateko hau bezeroek eta izakinek sortzen duten behar finantzariotik dator.

Taula aztertzen badugu ikus dezakegu izakinak direla behar gehien sortzen duen partida. Izakinen bilakaera gorakorra dela ikusten dugu Jesus Oñate y Hermanos-en kasuan aztertutako 3 urteetan, behar finantzarioa handitzen dutelarik.

Jesus Oñateren kasuan 2012. urtean ematen den hazkuntzaren arrazoi nagusia biltegian eta hauek saltzean aurreko urtean baino denbora gehiago behar dela da. Salmentak urte honetan txikitu diren arren 18 eta 31 egun gehiago behar da izakin hauek biltegitik ateratzeko eta saltzeko behar finantzarioa handitu egiten delarik.

2013. urtean ordea salmenten igoerak bultzatuta hazi da izakinen partida. Urte batetik bestera %21 gehiago saltzen du enpresak. Garrantzitsua da aipatzea ordea izakinak biltegian ematen duten denbora eta saltzen tardatzen den denbora jaitxi dela, 18 eta 6 egunetan hurrenez hurren. Honegatik ondorioztatzen dugu proportzioan gehiago saldu dela egunetan izan den beherakada baino eta horregatik izakinen partida handitu egin dela, behar finantzarioa handituz.

Zirkulatuzailearen finantza behar gordina osatzen duen beste partida bezeroena da. Bezeroen bilakaera ere gorakorra dela ikus dezakegu aztertutako hiru urteetan.

Zergatik hazi dira bezeroak?

Egindako kalkuluetan oinarrituz ikusten dugu kobratzeko gehiago tardatzea izan dela arrazoi nagusia. 2012. urtean, 2011. urtean baino 37 egun gehiago behar izan direlarik kobratzeko. Honek bezeroen partidaren hazkuntza ekarri du eta behar finantzarioaren hazkuntza.

2013. urtean ordea kobratzeko epea 35 egunetan gutxitu dela ikus dezakegu, behar finantzarioa murriztu egiten delarik. Salmenten bilakaera aztertzen badugu ordea, hazkuntza nabaria izan dutela ikusten dugu urte batetik bestera, %21ekoa hain zuzen ere. Hazkuntza honen ondorioz bezeroen partidak ere gora egin du urte batetik bestera, behar finantzarioa handituz.

2013. urtean salmenten partida kobratzeko epea gutxitu dena baino modu nabariagoan hazienez, urte batetik bestera bezeroen partida handitzearen arrazoi salmentetan dagoela ondorioztatu dezakegu, behar finantzarioa handituz urte batetik bestera.

Taularekin jarraituz ustiapeneko errotazio fondoaren oinarritzko beharraren bilakaera aztertuko da orain. Taulak erakusten duenez zirkulatuzailearen finantza behar gordina eta ustiapeneko errotazio fondo beharraren artean behar finantzarioaren jaitziera nabaria ematen da 3 urteetan.



Zergatik eman da beharraren jaitsiera hori? Hornitzaileengatik.

Hornitzaileek izan duten eboluzioa aztertzen badugu ikus dezakegu urtero handitu egiten den partida bat dela, erabilgarritasun finantzarioa handituz eta beharra jaitsi egiten delarik.

Egindako kalkuluei esker ikus dezakegu 2012 eta 2013. urteetan bi arrazoi desberdinek ekartzen dutela hornitzaileen hazkuntza.

2012. urtean hornitzaileak haztearen arrazoa erosketak ordaintzeko dagoen batez besteko egun kopurua handitzea izan da. Nahiz eta erosketak jaitsi egin diren urte batetik bestera 117 egun gehiago behar dira hornitzaileei ordaintzeko. Hau dela eta hornitzaileen partida 983.660,36 moneta unitatetan hazi da eta honekin erabilgarritasun finantzarioa, urte honetan ustiapeneko oinarriko errotazio fondoan eman den 483.992,12 m.u-ko beherakada azalduz.

2013. urteari dagokionez arrazoi nagusia erosketetan eman den hazkuntza izan da, 1.605.620'61 m.u.-koa. Nahiz eta urte batetik bestera 91 egun gutxiago dauden hornitzaileei ordaintzeko, erabilgarritasuna jaitsiz, erosketek izan duten hazkuntza askoz ere nabariagoa izan da egunen murrizketa baino, hornitzaileen partidaren handitzea ekarriz.

Ustiapeneko bestelako aktibo eta pasibo korranteak aztertzen baditugu ikus dezakegu ez dutela gehiegizko eraginik ustiapeneko errotazio fondo beharraren gain, aktibo eta pasibo hauek gehienbat administrazio publikoekin bestelako hartzekoek eta zorrek osatzen dute. Taulak erakusten duenez ez dute ustiapeneko oinarriko errotazio fondo beharra eta ustiapeneko errotazio fondoan eragin aldaketa handiegirik suposatzen.


Bestelako aktibo eta pasibo korranteek ordea baietz ikus dezakegu, ustiapeneko errotazio fondo beharra eta errotazio fondo beharraren artean ematen den diferentzia ikustea besterik ez dago. Bestelako aktibo korranteak bestelako aktibo finantzarioek osatzen dute.

Jesus Oñate y Hermanos-en kasuan hiru urteetan bestelako aktibo korrantea txikituz joan dela ikusten dugu eta pasibo korranteek balio handiagoa erakutsi du azken urtean nahiz eta 2012. urtean zertxobait txikitu den, erabilgarritasun finantzarioa handituz.

Bestelako pasibo korrante honen jatorria aztertzen badugu ikus dezakegu gehienbat kreditu erakundeekin zorrak osatzen dutela, ondorioztatzen dugu beraz kanpo finantzazioa ezinbestekoa dute beraien jarduera aurrera eramateko orduan. Batz besteko heltze aroak erakusten duenez likidezia berrekuratzeko denbora behar duen enpresa da Jesus Oñate y Hermanos.

DYTSa enpresaren errotazio fondoa negatiboa dela ikusten dugu aztertutako hiru urteetan, hau da, enpresak epe laburreko finantzazioarekin aktibo korrante osoaz gain aktibo ez-korrantearen zati bat ere finantzatzen du.

DYTSa enpresaren errotazio fondoaren taula aztertzen badugu Jesus Oñate y Hermanos enpresaren antzerako joera erakusten duela ikusten dugu baina tamaina txikiago batean. Zirkulatzaile finantza behar gordinean bai izakinak eta bezeroek beharra sortu dute eta hornitzaileek erabilgarritasun finantzarioa handitu dute, beharra jaitsiz. Ikus dezakegu izakinak direla behar gehien sortzen duten partida. Aipatu beharra dago DYTSa enpresak bideango produktuak ere dituela, Jesus Oñate y Hermanos-ek lehengaiak eta produktu bukatuak dituen bitartean.




Egindako kalkuluak aztertzen badugu konturatzen gara izakinak haztearen arrazoi nagusia salmenten hazkuntzan egon dela. Ikusten dugunez produktuaren BBHA txikitu den arren salmentak modu nabariagoan hazi dira eta ondorioz izakinen partida handitu da.

Bezeroen partida haztearen arrazoia izakinekin bezala salmenten hazkuntzak ekarri du, kobratze epearen murrizketa baino proportzio handiagoan hazi delarik.

Hornitzaileek Jesus Oñate y Hermanos enpresan gertatu den bezala beharraren beherakada nabaria ekartzen dute zirkulatzailerik finantza behar gordina eta ustiapeneko oinarritzko fondo beharraren arteko diferentziak erakusten duen bezala.

Taulak erakusten digun bezala 2012. urtetik 2013. urtera hornitzaileen partida hazi egin da. Honen zergatia urte honetan eman den erosketen hazkuntza hornitzaileei ordaintzeko dauden egunak baino proportzio handiagoan hazi direla da.

DYTSA enpresaren kasuan ere bai bestelako aktibo eta pasibo korronteek suposatzen dute aldaketa nagusia enpresaren beharran eta ez ustiapeneko bestelako aktibo eta pasibo korronteek. Ikus dezakegunez bestelako pasibo korronte oso handia erakusten du DYTSA enpresak, kreditu erakundeekin zorrak gehienak, eta honek eragiten du errotazio fondoa negatiboa izatea.



EGONKORTASUN FINANTZARIOAREN AZTERKETA EPE LABURREAN ETA EPE LUZEAN

Epe laburreko kaudimenaren analisia

| JOH | | | |
|------------------------------|-------------|-------------|-------------|
| Kaudimena | 2013 | 2012 | 2011 |
| EPE LABURRA | | | |
| E/lab kaudimena | 1,20 | 1,18 | 1,23 |
| Likidezia edo Froga garratza | 0,49 | 0,45 | 0,48 |
| Erabilgarria | 0,02728 | 0,00443 | 0,00051 |

| DYTSA | | | |
|------------------------------|-------------|-------------|-------------|
| Kaudimena | 2013 | 2012 | 2011 |
| EPE LABURRA | | | |
| E/lab kaudimena | 0,82 | 0,78 | 0,91 |
| Likidezia edo Froga garratza | 0,47 | 0,41 | 0,52 |
| Erabilgarria | 0,10623 | 0,04552 | 0,09910 |

1-Epe laburreko kaudimen ratioa

2011. urtean ratioaren emaitza 1,23 m.u-koa da, hau da, **epe laburreko zor m.u. bakoitzeko, haei aurre egiteko 1,23 m.u. ditu.** Beraz, enpresa epe laburrean kaudimenduna da, epe laburreko zorra baino epe laburreko ondasun eta eskubide gehiago baititu.

Ratio honen emaitza eta bilakaera errotazio fondoarekin eskutik doa, izan ere faktore berdinak hartzen dira kontuan kalkulua egiterako orduan. Errotazio fondo positiboa duen enpresa batek kaudimena adieraziko du epe laburrera, Jesus Oñate y Hermanos-en kasua.

Aztertu diren hiru urteetan eman den bilakaeran ikus daiteke ratioaren emaitzak V itxura erakusten duela, 2012. urtean txikitu egiten delarik 2013.urtean berriro ere hazteko. Jaitsiera honen arrazoia pasibo korrontearen hazkuntza aurkitzen da, errotazio fondoaren azterketak erakutsi digun bezala 2012 urtean egun gehiago daude hornitzaileei ordaintzeko, pasibo korrontea hazten delarik. Nahiz eta 2012. urtean enpresaren kaudimena txikiagotu den enpresak kaudimenduna izaten jarraitzen duela erakusten du bere emaitzetan.

Azkenik 2013. urtean berriro ere ratioaren emaitza hazi egiten da, gehienbat salmenten hazkuntzak ekarri duen bezeroen handitzeagatik, errotazio fondoaren azterketak erakutsi digun bezala.

DYTSA enpresak erakusten dituen emaitzak joera berdina erakusten dutela ikusten dugu, 2012. urtean txikitu egiten direla 2013. urtean berriro ere hazteko. Jesus Oñate y Hermanos S.A. ez bezala ratio guztiek 1 azpitik dagoen emaitza bat erakusten dutela ikus dezakegu. Hau da, DYTSA enpresak ez du epe laburreko ondasun eta eskubide gutxiago ditu epe laburreko zorrak baino.

2-Likidezia edo froga garratzaren ratioa

2011. urtean ratioak 0'48 m.u.-ko emaitza ematen du. Honek adierazten du epe laburreko zorren m.u. bakoitzagatik diruzaintza berehala bihurtu daitezkeen 0'48 m.u dituela ondasun eta eskubideetan.

3 urteetan emaitza 0'5 inguruan mantentzen dela ikusten dugu, 2012.urtean txikitu egiten delarik 2013. urtean berriro ere hazteko. 2012. urtean eman den pasibo korrontearen hazkuntza aktibo korrontearena baino handiagoa izan dela ikusi dugu eta ondorioz ratioaren emaitza txikitu egiten da. Pasibo korrontearen hazkuntza hornitzaileen partidak izandako hazkuntzagatik bultzatua izan da, errotazio fondoan aipatu den bezala.

2013. urtean ratioaren emaitza hazi egiten da berriro ere. Hazkuntza honen arrazoia, salmentak haztearen ondorio da, berarekin ekarri duen bezeroen partidaren hazkuntzarekin.



DYTSA enpresak ratioaren emaitza oso antzekoak aurkezten dituela ikus dezakegu, 0'5 inguruan mantentzen direlarik hauek ere hiru urteetan zehar, 2012koa izanik ere emaitza txikiena aurkezten duena.

Bi enpresen ratioak erakutsi duen joera aztertzean ikusten dugu DYTSA enpresak ratio hobea erakusten zuela aztertu diren 3 urteen hasieran. 2012. urtean erakusten duen beherakada ordea Jesus Oñate y Hermanos-ek izan zuena baino nabariagoa izan zen eta azkenik 2013. Urtean Jesus Oñate y Hermanos-ek emaitza hobea erakusten du likidezia edo froga garratzaren ratioan.

Hau ikusita ondorioztatzen dugu Jesus Oñate y Hermanos enpresak epe laburreko zor moneta unitate bakoitzeko dirutan berehala likidezia bihurtzeko daukan kapazitatea sektorearen batz bestekoaren inguruan kokatzen dela.

3-Berehalako likidezia edo erabilgarritasun ratioa

Ratioaren emaitza 0'00051 m.u.-koa da. Hau da, epe laburreko zor moneta unitate bakoitzeko 0,00051moneta unitate ditu erabilgarri. Bilakaera gorakorra dela ikusten dugu emaitzak aztertzean, urtero aurreko urtekoa baino emaitza handiago bat erakutsiz.

DYTSA enpresak erakusten dituen emaitzak aztertzean ikusten dugu Jesus Oñate y Hermanos enpresak aurkezten dituenak baino emaitza altuagoak dituela.

Bi enpresen arteko konparaketa eginez Jesus Oñate y Hermanos-ek diruzaintza baxua erakusten duela ondorioztatzen dugu, ratioen emaitzetan oinarrituz. DYTSAK, sektoreko lehiakide zuzenak, 0'1 inguruko emaitzak erakusten ditu 3 urteetan, Jesus Oñate y Hermanos-ek baino ratio hobek.

Ratioak batera irakurriz

- Hiru urteak batera aztertzean eta DYTSA enpresarekin konparatzean ratio emaitza onak erakusten dituen enpresa dela baieztatu dezakegu Jesus Oñate y Hermanos. Kaudimenduna dela epe laburrera, nahiz eta 2012. urtean kaudimena zertxobait jaitsi. Hau da, hiru urteetan Jesus Oñate y Hermanos S.A. epe laburreko ondasun eta eskubide gehiago ditu epe laburreko zorrak baino.
- Likidezia edo froga garratzaren ratioari dagokionez DYTSA enpresarekin egindako konparaketari esker ikusten dugu sektorearen batzbezteko kapazitatearen inguruan kokatzen dela. Ratio honek ere kaudimenaren joera berdina jarraitu du, 2012. urtean jaitsiz eta hurrengo urtean berriro ere haziz.
- Erabilgarritasun ratioa dugu hiruren artean txikiena, DYTSA enpresarekin konparatuz askoz kapazitate txikiagoa du enpresak momentuan ordaintzeko. Nahiz eta joera gorakorra izan duen 3 urteetan zehar emaitza baxua erakusten duen ratioa dugu erabilgarritasun ratioa.
- Jesus Oñate y Hermanos-ek ratio onak erakusten dituela baieztatu dezakegu DYTSA enpresarekin konparatu eta gero, salbuespen bezala hartuz erabilgarritasun ratioak erakusten duen emaitza txikia. Enpresari ezusteko ordainketa bati aurre egiteko arazoak zor liezaioke.



Epe luzeko kaudimenaren analisia

| JOH | | | |
|------------------|-------------|-------------|-------------|
| Kaudimena | 2013 | 2012 | 2011 |
| Kaudimen totala | 1,38 | 1,32 | 1,37 |
| Zorpetzea | 0,72 | 0,76 | 0,73 |

| DY TSA | | | |
|------------------|-------------|-------------|-------------|
| Kaudimena | 2013 | 2012 | 2011 |
| Kaudimen totala | 1,27 | 1,23 | 1,20 |
| Zorpetzea | 0,79 | 0,81 | 0,83 |

1-Kaudimen totalaren ratioa

Kaudimen totalak 1,37ko emaitza erakusten du 2011. urtean. Honek esan nahi du zor moneta unitate bakoitzeko 1,37 moneta unitate dituela ondasun eta eskubideetan. Beraz enpresa kaudimenduna da, hau da, dituen zorrak baino ondasun eta eskubide gehiago ditu.

Epe laburreko analisisian gertatu den bezala epe luzeko kaudimenak V itxurako joera izan du aztertutako hiru urteetan, 2012. urtean txikitu egin delarik 2013. urtean berriro ere hazteko eta aztertutako 3 urteetako emaitza altuena erakusteko.

Egoera balantzeko zenbaki indizeetan oinarrituz ikus dezakegu 2012. urtean aktiboa txikitu egin dela pasiboa hazi egin den bitartean, ratioaren emaitzan izandako murrizketa azalduz. Sakonago aztertuz aktiboaren murrizketa aktibo ez korrontearen murrizketagatik bultzatua izan da gehienbat, lbilgetu ukiezina eta materiala izanik gehien txikitu diren partidak, %17 eta %18 hurrenez hurren.

Pasiboaren hazkuntzari dagokionez epe laburreko finantzazioaren hazkuntza izan da arrazoi nagusia. Urte tarte honetako bilakaera aztertzen badugu epe luzeko finantzazioa jaitsi egin dela ikusten dugu epe laburrekoa hazi egin den bitartean. Errotazio fondoaren iruzkinean aipatu bezala epe laburreko finantzazio handitzearen arrazoi handiena hornitzaileen partidak izan duen hazkuntza izan da, %18koa.


2013. urtean enpresaren kaudimen totala berriro ere hazi egiten dela ikus dezakegu, zor moneta unitate bakoitzeko epe laburreko ondasun eta eskubide gehiago dituelarik. Ratioaren emaitzaren haztea aktiboaren hazkuntzan eta pasiboaren txikipenean aurkitzen da.

Aktiboaren hazkuntza aktibo korrontearen hazkuntzagatik izan da gehienbat. Nahiz eta aktibo ez korrontea jaitsi, gehienbat lbilgetuaren beherakadagatik, aktibo korrontea proportzioan gehiago hazi da, bezeroen partidak izan duen %27ko hazkuntzagatik bati-bat.

Pasiboari dagokionez jaitziera txiki bat eman dela ikusten da, hau da, gutxiago finantzatzen dela 2013. urtean. Epe luzeko finantzazioari dagokionez ordea %46 baten jaitsi da, batez ere epe luzeko zorrak txikitzeagatik %55 batean.

DY TSA enpresaren kaudimen totalaren ratioak aztertzean ere ikusten dugu enpresak ondasun eta eskubide gehiago dituela zorrak baino. DY TSA enpresan joerari dagokionez hiru urteetan hazi egiten dela ikus dezakegu datuetan baina hala eta guttiz ere Jesus Oñate y Hermanos enpresak aurkezten dituen emaitzen azpitik dago.

Bi enpresen ratioak elkarren artean konparatu eta gero kaudimen totalaren ratioan emaitza onak erakusten dituela baieztatu dezakegu Jesus Oñate y Hermanos-ek. DY TSA enpresak baino emaitza hobek erakusten ditu aztertutako hiru urteetan dituen eskubide, ondasun eta zorren arteko erlazioari dagokionean.



2-Zorpetze ratioa

2011. urteko zorpetze ratioaren emaitza 0'73koa da. Hau da, enpresaren finantzazio osoaren %73a kanpo finantzaketa da. Aztertutako 3 urteetan zehar zorpetzea %75ekoa izan da gutxi gorabehera, hau da, enpresaren finantzazio osoaren 3 laurdenak gutxi gorabehera kanpo finantzaketa dira.

DY TSA enpresaren emaitzak aztertzean kanpo finantzazioa ere altua dela ikusten dugu, %80 ingurukoa hiru urteetan, hau da, enpresaren finantzazio osoaren %80 inguru kanpo finantzazioan du jatorria. Ondorioztatzen dugu beraz bi enpresentzat kanpo finantzazioa dela finantza iturri nagusia.

Ratioak batera irakurriz

- 3 urteetako ratioak aztertuz eta DY TSArekin konparatuz baieztatu dezakegu epe luzean ere enpresa kaudimenduna dela, hau da, zorrei aurre egiteko nahiko ondasun eta eskubide dituela. 2012. urtean kaudimena jaitsi arren 2013. urtean berriro ere hazi egiten da eta 3 urteetan lehiakide zuzenak baino kaudimen handiagoa erakusten du.
- Zorpetzea aztertzen badugu errekurtsoen hiru laurdenak kanpo finantzaketaz lortzen dituela ikusten dugu 3 urteetan, 2012. urtean erakusten duelarik balio altuena. Hala ere enpresa gai da bere ondasun eta eskubideekin kanpo finantzazio honek sortzen dituen zorrei aurre egiteko.
- Jesus Oñate y Hermanos-ek epe luzeko ratio onak erakusten dituela baieztatu dezakegu DY TSA enpresarekin egindako konparaketa eta gero.




Diru-fluxuen taula

| JOH | | | | | | |
|---|----------------------|--------------|---------------------|-------------|----------------------|-------------|
| DIRU FLUXU TAULA | 2013 | zki ind | 2012 | zki ind | 2011 | zki ind |
| 1.Zerga aurreko emaitza | 844.559,83 | 132% | -642.048,75 | 219% | 292.586,78 | 100% |
| 2.Emaitzaren dohikuntzak | 1.432.845,46 | 112% | 1.282.734,36 | 86% | 1.484.082,79 | 100% |
| a)Ibilgetuaren amortizazioa | 885.207,33 | 98% | 906.860,08 | 77% | 1.178.046,88 | 100% |
| b)Balio narriaduraren zuzenketak | 175.286,56 | 504% | -34.755,92 | 100% | 34.755,92 | 100% |
| d)Dirulaguntzen esleitzeak | -25.579,72 | 100% | -25.579,73 | 74% | -34.373,52 | 100% |
| g)Finantza sarrerak | -11.370,34 | 90% | -12.668,60 | 186% | -6.803,41 | 100% |
| h)Finantza gastuak | 430.602,63 | 93% | 461.903,53 | 116% | 398.634,92 | 100% |
| k)Bestelako sarrera eta gastuak | -21.301,00 | 164% | -13.025,00 | 15% | -86.178,00 | 100% |
| Sortutako baliabideak (EBITDA) | 2.277.405,29 | 355% | 640.685,61 | 36% | 1.776.669,57 | 100% |
| 3.Kapital korrontearen aldaketak | -1.003.306,42 | 864% | 116.076,54 | 27% | 425.622,76 | 100% |
| a)Izakinak | -217.291,00 | 66% | -329.752,00 | 36% | -920.875,00 | 100% |
| b)Zordunak eta kobratzeko beste zenbait kontu | -1.065.582,22 | 241% | -442.242,57 | 37% | 1.199.127,00 | 100% |
| c)Beste zenbait aktibo korriente | 99.161,75 | 180% | -55.017,66 | 289% | -19.024,43 | 100% |
| d)Hartzekodunak eta beste zenbait ordaintzeko kontu | 153.604,35 | 16% | 971.352,03 | 568% | 171.130,83 | 100% |
| e)Beste zenbait pasibo korriente | 26.800,70 | 95% | -28.263,26 | 597% | -4.735,64 | 100% |
| Ustiapen diru fluxu gordina | 1.274.098,87 | 168% | 756.762,15 | 34% | 2.202.292,33 | 100% |
| 4.Ustiapeneko bestelako diru fluxuak | -419.232,29 | 93% | -449.234,93 | 106% | -423.402,41 | 100% |
| a)Interesen ordaintaketa | -430.602,63 | 93% | -461.903,53 | 116% | -398.634,92 | 100% |
| c)Interesen kobroa | 11.370,34 | 90% | 12.668,60 | 186% | 6.803,41 | 100% |
| d)Mozkinen gaineko zergaren ordaintaketa kobroa | | | | 0% | -31.570,90 | 100% |
| Ustiapeneko diru fluxua | 854.866,58 | 278% | 307.527,22 | 17% | 1.778.889,92 | 100% |
| B)INBERTSIO ERAGIKETEN DIRUFLUXUA | | | | | | |
| 6.Inbertsioen ordaintaketa | -702.441,77 | 144% | -486.131,87 | 32% | -1.497.538,77 | 100% |
| b)Ibilgetu ukiezina | -21.301,00 | 164% | -13.025,00 | 12% | -110.712,69 | 100% |
| c)Ibilgetu materiala | -681.140,77 | 144% | -473.106,67 | 47% | -1.009.299,88 | 100% |
| e)Bestelako aktibo finantzarioak | | | | 0% | -377.526,20 | 100% |
| 7.Desinbertsioen kobroak | 296.993,75 | 56% | 526.425,16 | | | |
| e)Bestelako aktibo finantzarioak | 296.993,75 | 56% | 526.425,16 | | | |
| 8.Inbertsio eragiketen diru fluxua | -405.448,02 | 1006% | 40.283,29 | 3% | -1.497.538,77 | 100% |
| C)FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK | | | | | | |
| 9.Ondare-tresnen kobro eta ordaintaketa | 7.162,32 | 100% | 7.162,32 | 12% | 59.858,52 | 100% |
| e)Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak | 7.162,32 | 100% | 7.162,32 | 12% | 59.858,52 | 100% |
| 10.Pasibo finantzarioko kobroak eta ordaintaketa | -135.874,58 | 57% | -239.433,58 | 65% | -369.374,82 | 100% |
| a)Jaulkipena | | | | | 10.862,92 | 100% |
| 4.Bstelako zorrak (+) | | | | | 10.862,92 | 100% |
| b)Itzulketak eta amortizazioak | -135.874,58 | 57% | -239.433,58 | 63% | -380.237,74 | 100% |
| 2.Kreditu erakundeekin zorrak (-) | -98.051,93 | 42% | -232.389,91 | 61% | -380.237,74 | 100% |
| 4.Bstelako zorrak (-) | -37.822,65 | 537% | -7.043,67 | | | |
| 11.Dibidenduen ordaintaketa | -64.000,00 | 50% | -64.000,00 | 50% | -128.000,00 | 100% |
| a)Dibidenduak (-) | | | -64.000,00 | 50% | -128.000,00 | 100% |
| 12.Finantza eragiketen diru fluxuak | -128.712,26 | 43% | -296.271,26 | 68% | -437.516,30 | 100% |
| D)KANBIO TASAREN ALDAKETAREN ERAGINA | | | | | | |
| DIRUZAINZA ETA ANTZEKOEN HAZKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA | 320.706,30 | 622% | 51.549,25 | 33% | -156.165,15 | 100% |
| Diruzaintza eta antzekoak ekitaldi hasieran | 57.740,15 | 933% | 6.190,90 | 4% | 162.356,05 | 100% |
| Diruzaintza eta antzekoak ekitaldi bukaeran | 378.446,45 | 655% | 57.740,15 | 933% | 6.190,90 | 100% |



| DYTSA | | | | | | |
|---|--------------------|-------------|--------------------|---------------|---------------------|-------------|
| DIRU FLUXU TAULA | 2013 | zki ind | 2012 | zki ind | 2011 | zki ind |
| 1.Zerga aurreko emaitza | -76.813,00 | 103% | -74.936,00 | 12% | 610.560,00 | 100% |
| 2.Emaitzaren dohikuntzak | 777.965,00 | 85% | 916.240,00 | 77% | 1.192.710,00 | 100% |
| a)Ibilgetuaren amortizazioa | 619.889,00 | 96% | 648.453,00 | 77% | 839.146,00 | 100% |
| b)Balio narriaduraren zuzenketak | -15.316,00 | 26% | 58.363,00 | 154% | 37.879,00 | 100% |
| f)Finantza-tresnen baja eta salmenten emaitza | -44.274,00 | 233% | -18.972,00 | 2530% | -750,00 | 100% |
| g)Finantza sarrerak | -4.164,00 | 56% | -7.471,00 | 75% | -9.930,00 | 100% |
| h)Finantza gastuak | 312.639,00 | 92% | 338.801,00 | 102% | 333.372,00 | 100% |
| i)Kanbio diferentziak | -4.162,00 | 99% | 4.192,00 | 169% | 2.483,00 | 100% |
| k)Bestelako sarrera eta gastuak | -86.647,00 | 81% | -107.126,00 | 1129% | -9.490,00 | 100% |
| ebitda | 701.152,00 | | 841.304,00 | | 1.803.270,00 | |
| 3.Kapital korrontearen aldaketak | 174.516,00 | 268% | 65.150,00 | 8% | -844.927,00 | 100% |
| a)Izakinak | -157.799,00 | 60% | 265.104,00 | 36% | -736.585,00 | 100% |
| b)Zordunak eta kobratzeko beste zenbait kontu | -360.296,00 | 123% | 293.491,00 | 62% | -469.957,00 | 100% |
| c)Beste zenbait aktibo korriente | 835,00 | 1% | 61.382,00 | 188% | 32.686,00 | 100% |
| d)Hartzekodunak eta beste zenbait ordaintzeko kontu | 762.629,00 | 153% | -499.042,00 | 132% | 378.360,00 | 100% |
| e)Beste zenbait pasibo korriente | -70.853,00 | 127% | -55.785,00 | 113% | -49.431,00 | 100% |
| Ustiapen diru fluxu gordina | 875.668,00 | | 906.454,00 | | 958.343,00 | |
| 4.Ustiapeneko bestelako diru fluxuak | -243.523,00 | 86% | -281.899,00 | 109% | -259.625,00 | 100% |
| a)Interesen ordainketa | -303.310,00 | 90% | -338.801,00 | 102% | -333.372,00 | 100% |
| b)Dibidenduen ordainketa | | | | | | |
| c)Interesen kobroa | 4.002,00 | 54% | 7.471,00 | 75% | 9.930,00 | 100% |
| d)Mozkinen gaineko zergaren ordainketa kobroa | | | | | | |
| e)Bestelako ordainketak (kobroak) | 55.785,00 | 113% | 49.431,00 | 77% | 63.817,00 | 100% |
| Ustiapeneko diru fluxua | 632.145,00 | 101% | 624.555,00 | 89% | 698.718,00 | 100% |
| B)INBERTSIO ERAGIKETEN DIRUFLUXUA | | | | | | |
| 6.Inbertsioen ordainketa | -569.478,00 | 78% | -732.794,00 | 122% | -598.690,00 | 100% |
| b)Ibilgetu ukiezina | | | -8.659,00 | | | |
| c)Ibilgetu materiala | -549.148,00 | 76% | -724.135,00 | 121% | -598.690,00 | 100% |
| e)Bestelako aktibo finantzarioak | -20.330,00 | | | | | |
| 7.Desinbertsioen kobroak | 143.889,00 | 67% | 214.873,00 | 28650% | 750,00 | 100% |
| c)Ibilgetu materiala | | | 24.500,00 | 3267% | 750,00 | 100% |
| e)Bestelako aktibo finantzarioak | 73.940,00 | 302% | | | | |
| f)Saltzeko mantendutako aktibo ez-korrontekak | 69.949,00 | 37% | 190.373,00 | | | |
| 8.Inbertsio eragiketen diru fluxua | -425.589,00 | 82% | -517.921,00 | 87% | -597.940,00 | 100% |
| C)FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK | | | | | | |
| 9.Ondare-tresnen kobro eta ordainketak | 500.002,00 | | | | | |
| 10.Pasibo finantzarioko kobroak eta ordainketak | -147.745,00 | 27% | -552.793,00 | 464% | -119.023,00 | 100% |
| 1.Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak (+) | | | | | -275.373,00 | 100% |
| 2.Kreditu erakundeekin zorrak (+) | | | | | 156.350,00 | 100% |
| b)Itzulketak eta amortizazioak | 605.000,00 | | | | | |
| 2.Kreditu erakundeekin zorrak (-) | -752.745,00 | 136% | -552.793,00 | | | |
| 11.Dibidenduen ordainketak | | | | | | |
| 12.Finantza eragiketen diru fluxuak | 352.257,00 | 64% | -552.793,00 | 464% | -119.023,00 | 100% |
| D)KANBIO TASAREN ALDAKETAREN ERAGINA | | | | | | |
| DIRUZAINNTZA ETA ANTZEKOEN HAZKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA | 558.813,00 | 125% | -446.159,00 | 2445% | -18.245,00 | 100% |
| Diruzaintza eta antzekoak ekitaldi hasieran | 348.718,00 | 44% | 794.877,00 | 98% | 813.122,00 | 100% |
| Diruzaintza eta antzekoak ekitaldi bukaeran | 907.531,00 | 260% | 348.718,00 | 44% | 794.877,00 | 100% |



Hiru urteetan diruzaintzak izan duen joera gorakorra da diru-fluxu taulak erakusten digun bezala. Hala eta guztiz ere aipatu behar dugu DYTSA enpresarekin konparaturik diruzaintza baxua erakusten duela Jesus Oñate y Hermanos enpresak ratioen azterketan ikusi den bezala.

Diruzaintzaren bilakaera aztertzean ikusten dugu 2012. urtean hazi egiten dela. Ustiapen emaitza urte honetan asko txikitzen da gehienbat urte honetan enpresak erakusten duen zerga aurreko emaitza negatiboagatik.

Inbertsio eragiketen diru fluxua aztertzean urte honetan zenbateko positiboa erakuten duela ikus dezakegu.

Finantza jardueretako diru fluxuak aurreko urteko baino zenbateko txikiagoa erakusten duela ikus dezakegu.

Hau guztiagatik urte honetan diruzaintza hazi egin da baina DYTSA enpresaren diruzaintzarekin konparatzen badugu txikia dela ikusten dugu.


2013. urtean diruzaintza hazi egiten da, modu nabariago batean oraingoan. Arrazoi nagusia urte honetan ustiapen emaitzak izan duen hazkuntzan aurkitzen da.

Inbertsio eragiketen diru fluxuak aurten emaitza negatibo bat erakusten du.

Finantza jardueretako diru fluxuak zenbateko txikiagoa aurkezten du urte honetan.

Aipatu beharra dago nahiz eta hiru urteetan diruzaintza asko hazi den DYTSA enpresak erakusten duenaren azpitik dagoela.

Azter ditzagun horain diruzaintzan gorabeherak sortu dituzten faktoreak modu sakonago batean.



Ustiapeneko diru-fluxua

Ustiapeneko diru fluxuko emaitzek erakusten diguten bezala hiru urteetan enpresak bere jarduerarekin diru fluxuak sortzeko gaitasuna du, negozioaren jarraipena bermatzeko ezinbestekoa. Nahiz eta 3 urteek ustiapeneko diru fluxu positibo bat erakusten duen Jesus Oñate y hermanos-en kasuan atentzioa deitzen 2012. urtean ematen den beherakada, %80 ingurukoa.

DYTSA enpresaren kasuan ere bere jarduerarekin diru fluxuak sortzeko gaitasuna duela ikusten dugu eta hiru urteetan nahiko emaitza antzerakoa mantendu du.

| JOH | | | | | | |
|---------------------------------|--------------|---------|--------------|---------|--------------|---------|
| DIRU FLUXU TAULA | 2013 | zki ind | 2012 | zki ind | 2011 | zki ind |
| 1.Zerga aurreko emaitza | 844.559,83 | 132% | -642.048,75 | 219% | 292.586,78 | 100% |
| 2.Emaitzaren doikuntzak | 1.432.845,46 | 112% | 1.282.734,36 | 86% | 1.484.082,79 | 100% |
| Sortutako baliabideak (EBITDA)* | 2.277.405,29 | 355% | 640.685,61 | 36% | 1.776.669,57 | 100% |

| DYTSA | | | | | | |
|---------------------------------|------------|---------|------------|---------|--------------|---------|
| DIRU FLUXU TAULA | 2013 | zki ind | 2012 | zki ind | 2011 | zki ind |
| 1.Zerga aurreko emaitza | -76.813,00 | 103% | -74.936,00 | 12% | 610.560,00 | 100% |
| 2.Emaitzaren doikuntzak | 777.965,00 | 85% | 916.240,00 | 77% | 1.192.710,00 | 100% |
| Sortutako baliabideak (EBITDA)* | 701.152,00 | 83% | 841.304,00 | 47% | 1.803.270,00 | 100% |

*EBITDA: Ingeleseaz Earnings Before Interest, Taxes, Depreciation, and Amortization. Enpresak interesak, zergak, amortizazioak eta balio narriadurak kontuan hartu gabe likidezia sortzeko duen kapazitatea erakusten du.


Bi enpresen EBITDA aztertzen badugu Jesus Oñate y Hermanos-ek emaitza handiago bat lortzen duela ikus dezakegu 2012. urtea salbuespen bezala hartuz, DYTSA enpresak EBITDA hobe erakusten duelarik. Hala ere, 2013. urtean Jesus Oñate y Hermanos enpresak EBITDA askoz handiagoa erakusten du berriz ere.

Kapital korrontearen aldaketak kontuan hartuz ikusten dugu enpresaren diruzaintza sortzeko ahalmena txikitzen joan dela. 2012. urtean, aurreko urtean baino %75 txikiagoa izanik gutxi gorabehera. Aldaketa hau gehienbat aktibo korrontea handitzeagatik eman da. Izakinen kasuan arrazoi nagusia biltegian eta hauek saltzean aurreko urtean baino denbora gehiago behar dela da, 18 eta 31 egun gehiago hurrenez hurren, behar finantzarioa handitu eta doikuntza negatibo bat egiten delarik.

Aldaketa nabariena bezeroen partidana eman da. Kobratzeko denbora gehiago tardatzen denez 2012. urtean doikuntza negatiboa ekarri dute kapital korrontearen aldaketan. Hornitzaileei dagokienez ordaintzeko epea haztearekin erabilgarritasun finantzarioak ere gora egin du eta honek doikuntza positiboa ekarri du berarekin.

Kapital korrontearen aldaketak 2013.urtean negatiboak direla ikus daiteke. Salmenten hazkuntzaz gain izakinak biltegian ematen duten denbora eta saltzen tardatzen den denbora jaitsi da, 18 eta 6 egunetan hurrenez hurren. Egunen murrizketa honek doikuntza hain nabaria ez izatea ekarri du -217.291 moneta unitatetan utziz.

Bezeroek bai ekarri dute doikuntza nabariagoa, -1.605.582'22 moneta unitatekoa. Kobratzeko epea 35 egunetan gutxitu dela ikus dezakegu, behar finantzarioa murriztu egiten delarik. Salmenten bilakaera aztertzen badugu ordea, hazkuntza nabaria izan dutela ikusten dugu urte batetik bestera, %21ekoa hain zuzen ere. Hazkuntza honen ondorioz bezeroen partidak ere gora egin du urte batetik bestera, behar finantzarioa handituz.



Salmentak partida kobratzeko epea gutxitu dena baino gehiago hazi dira, beraz bezeroen partida handitzearen arrazoa salmentak izan dira.

Hornitzaileei dagokionez ikus daiteke hazi egin dela urte honetan ere bai baina modu apalago batean. Arrazoi nagusia 2013. urtean erosketen hazkuntza bat eman dela da, 1.605.620'21 moneta unitatekoa, baina urte batetik bestera 91 egun gutxiago daudenez hornitzaileei ordaintzeko, ez da modu hain nabarian hazi. Erosketek izan duten hazkuntza ordaintzeko egunen murrizketa baino nabariagoa izan denez finantzazioa hazi egin da.

DYTSA enpresaren kasuan ikusten dugu kapital korrontearen aldaketak diruzaintza sortzeko ahalmena handitzen dutela. Izakinak eta bezeroek doikuntza negatibo bat suposatzen dute 2013.urtean, izan ere, salmenten hazkuntzak bultzaturik gehienbat izakinak eta bezeroen partidak hazi egin dira urte honetan, efektiboa murriztuz. Diruzaintza handitzea ekartzen duena gehienbat hornitzaileen partidak izan duen hazkuntza nabariak bultzatuta dago. Urte batetik bestera hornitzaileen partida %22an hazten da gehienbat erosketetan eman den hazkuntzak bultzatua eta honek doikuntza positiboa ekarri du berarekin.

Ustiapeneko bestelako diru fluxuek diruzaintza sortzeko ahalmenean murrizketa bat suposatu dute gehienbat interesen ordainketek bultzatua. Hau lehen aipatua izan den bezala enpresa kanpo finantzazioaz asko baliatzen delako da, honek dakarren interes ordainketekin. Hiru urteetan ustiapeneko bestelako diru fluxuak antzera mantendu direla ikus daiteke.

DYTSA enpresaren ustiapeneko bestelako diru fluxuak ere bai efektiboaren murrizketa bat suposatu dute gehienbat interesen ordainketak bultzatua. Egoera balantzea aztertzerakoan ikusi dugu enpresa honetan ere kanpo finantzazioa altua dela eta ondorioz interesen ordainketak ulergarriak dira.

Inbertsio jarduetarako diru fluxuak

Taula azertzean atentzia deitzen duen lehenengo gauza enpresak urtero egiten duen inbertsio esfortzu handia da.

Taulan ikusi daitekeenez ibilgetu materialera dago bideratuta inbertsioaren ia osoa. Taulan ikus daiteke 2012. urtean enpresak inbertitzen jarraitzen duela, modu apalago batean 486.131'87 moneta unitate erabiliz inbertsiorako. Inbertsioak aurrera eramateko desinbertsioak egiten direla erakusten digu diru fluxu taulan, aktibo finantzariotan ematen direla desinbertsio hauek.

Azkenik 2013. urtean berriro ere inbertsioak gora egiten duela ikus dezakegu inbertsioen ordainketa atalak erakusten digun bezala. Urte honetan ere desinbertitu egiten dela ikus daiteke baina modu apalago batean. Honen arrazoa lehenago azertu dugun ustiapen diru fluxua handitzean aurkitu dezakegu.

DYTSA enpresaren kasuan Inbertsioak Jesus Oñate y Hermanos-ek egiten dituen inbertsio mailen azpitik egon arren ikusten dugu inbertsioak aurrera eramaten direla baita ere, batez ere ibilgetu materialean. DYTSA enpresak ere desinbertsioak egiten dituela ikus dezakegu, saltzeko mantendutako aktibo ez-korrontetean eta ibilgetu materialean eta aktibo finantzarioetan.



Finantza jardueretako diru fluxuak

Taularen egitura aztertuz ikus dezakegu finantzaketa jardueretako diru-fluxuei dagokienez efektiboaren gehiengoa pasibo finantzarioko kobro eta ordainketetan aurkitzen dela.

Enpresako urteko kontuetan aurkitu dezakegun memorian azaltzen denez enpresak jasotzen dituen diru-laguntzak ustiapenera zuzenduak daude. 3 urteetako eboluzioa ikusiz ikusten da 2012 eta 2013 urtean diru-laguntza txikiagoa jasotzen duela enpresak.

Pasibo finantzarioko kobro eta ordainketen egitura aztertuz ikus dezakegu enpresa zorra ordaintzen ari dela aztertutako hiru urteetan. Zor honen jatorria aztertzen badugu gehiena kreditu erakundeekin zorra dela ikus dezakegu.

Jesús Oñate y Hermanos-ek gainontzekoa dibidenduak banatzera bideratzen du taulak erakusten duen bezala. Urtero kantitate txikiagoa banatzen da dibidenduetan eta azkenik 2013. urtean taulak ez du banatutako dibidendurik erakusten, seguruenik 2012. urteko ekitaldiko emaitza negatiboa zela.

DYTSA enpresaren kasuan ere bai finantzaketa-jardueretako diru-fluxu gehiena zorrak ordaintzera bideratuta dago, zehazki kreditu erakundeekin zorrak ordaintzera. Zor hauek urte batetik bestera hazi egiten direla ikusi dezakegu.

Dibidenduen ordainketei dagokienez ez dituztela banatzen ikus dezakegu aztertutako hiru urteetan.

Ondorioztatzen dugu beraz bi enpresentzat kreditu erakundeak ezinbesteko finantzazio iturriak direla.



Arrisku finantzarioa

Diru fluxu-taularen azterketan ikusi dugunez bi enpresek inbertsioak aurrera eramaten dituzte eta kanpo finantzazioaz baliatzen dira gehienbat. Arrisku finantzarioari esker honek suposatzen duen arriskua aztertuko da.

| JOH | | | | | |
|--|-------------------|----------------|-------------------|----------------|--------------------|
| ARRISKU FINANTZARIOA | | | | | |
| | 2013 | zki ind | 2012 | zki ind | 2011 |
| Inbertsio eragiketen diru-fluxuen aldaketa | -405.448,02 | 1006,49% | 40.283,29 | 2,69% | -1.497.538,77 |
| Itzulgarriak ez diren finantzaketa eragiketen kobroak: kapitala eta diru-laguntzak | 7.162,32 | 100,00% | 7.162,32 | 11,97% | 59.858,52 |
| Ustiapeneko diru fluxuak | 854.866,58 | 277,98% | 307.527,22 | 17,29% | 1.778.889,92 |
| INBERTSIO eragiketen arrisku finantzarioa | 456.580,88 | 128,62% | 354.972,83 | 104,03% | 341.209,67 |
| Zorren edo kapitalaren itzulketagatik ordainketak | -135.874,58 | 56,75% | -239.433,58 | 62,97% | -380.237,74 |
| Dibidenduen ordainketak | | | -64.000,00 | 50,00% | -128.000,00 |
| Arrisku finantzarioa guztira | 320.706,30 | 622,26% | 51.539,25 | 30,86% | -167.028,07 |
| Zorpetze eragiketen kobroak | | | | | 10.862,92 |
| Eskudiruaren aldaketak | 320.706,30 | 622,14% | 51.549,25 | 33,01% | -156.165,15 |

| DYTSA | | | | | |
|--|--------------------|----------------|--------------------|----------------|-------------------|
| ARRISKU FINANTZARIOA | | | | | |
| | 2013 | | 2012 | | 2013 |
| Inbertsio eragiketen diru-fluxuen aldaketa | -425.589,00 | 82,17% | -517.921,00 | 86,62% | -597.940,00 |
| Itzulgarriak ez diren finantzaketa eragiketen kobroak: kapitala eta diru-laguntzak | | | | | |
| Ustiapeneko diru fluxuak | 632.145,00 | 101,22% | 624.555,00 | 89,39% | 698.718,00 |
| INBERTSIO eragiketen arrisku finantzarioa | 206.556,00 | 193,71% | 106.634,00 | 105,81% | 100.778,00 |
| Zorren edo kapitalaren itzulketagatik ordainketak | -752.745,00 | 136,17% | -552.793,00 | | |
| Dibidenduen ordainketak | | | | | |
| Arrisku finantzarioa guztira | -546.189,00 | 122,42% | -446.159,00 | 442,71% | 100.778,00 |
| Zorpetze eragiketen kobroak | | | | | |
| Eskudiruaren aldaketak | 558.813,00 | 125,25% | -446.159,00 | 2445,38% | -18.245,00 |

Taula aztertzen badugu ikus dezakegu Jesus Oñate Hermanos-ek hiru urteetan Inbertsio eragiketen arrisku finantzarioan kopuru positibo bat duela, hau da, hiru urteetan inbertsioaren diru-fluxu aldaketak suposatu duena baino gehiago sortu du bere ustiapenarekin. Aipatu beharra dago ordea 2012. urtean desinbertsioak eraman direla aurrera inbertitzen jarraitu ahal izateko lehen ikusi dugun bezala.

Arrisku finantzarioaren taula aztertzean ikusten dugu 2011. urtean zenbateko negatiboa erakusten duela enpresak. Arrisku honen jatorria aztertzean ikusten dugu enpresak bere jarduerarekin inbertsio ia osoa estaltzeko gai dela eta arriskua sortzearen zergatia dibidenduen banaketan aurkitzen dela, 128.000 moneta unitateko ordainketa batekin. Hurrengo urteetan ordea enpresak arrisku finantzario positibo bat erakusten du.

DYTSA enpresak aurkezten dituen kopuruak aztertuz ikus dezakegu ere bai emaitza positiboak erakusten dituela hiru urteetan, inbertsio eragiketen diru fluxu aldaketak sortu suposatu duena baino gehiago sortuz ustiapeneko diru fluxuarekin.

Inbertsio hauek dakarten zorren ordainketa ordea handitu egin da DYTSA enpresaren kasuan 2012 eta 2013. urteetan zorpetze honek arrisku finantzario bat sortu du, urte batetik bestera hazi egin delarik gainera. Beraz ikusten dugu DYTSA enpresaren kasuan zorpetzeak arrisku finantzarioa suposatzen duela enpresarentzat.

Jesús Oñate y Hermanos-en 2011. urtea salbuespen bezala hartuta, arrisku finantzarioak erakusten digu zorrak eta dibidenduak ordaindu eta gero oraindik ere emaitza positiboa duela, hau da, enpresak inbertsioei eta zorrei aurre egiteko gaitasuna adierazten du aztertutako hiru urteetan.



Errentagarritasun ekonomikoa

| JOH | | | | | | |
|-------------------------|-------------|----------------|-------------|----------------|-------------|----------------|
| POLITIKA FISKALA | 2013 | ZKI IND | 2012 | ZKI IND | 2011 | ZKI IND |
| Zerga gastua | 0,00 | 0% | 122.480,37 | 639% | 19.154,90 | 100% |
| Zerga aurreko emaitza | 844.559,83 | 132% | -642.048,75 | 219% | 292.586,78 | 100% |

| DYTSA | | | | | | |
|-------------------------|-------------|----------------|-------------|----------------|-------------|----------------|
| POLITIKA FISKALA | 2013 | ZKI IND | 2012 | ZKI IND | 2011 | ZKI IND |
| Zerga gastua | 192.185,00 | 192% | 100.220,00 | 1310% | -7.652,00 | 100% |
| Zerga aurreko emaitza | -76.813,00 | 103% | -74.936,00 | 12% | 610.560,00 | 100% |

Bai Jesus Oñate y Hermanos S.A eta DYTSA enpresaren politika fiskalak aztertzen baditugu ikus dezakegu mozkinen gaineko zergak eragina duela eta ondorioz ROI kalkulatzeko orduan honen eragina kenduko da konparaketa zehatzagoa izan dadin BAIAl erabiliz.

| JOH | | | | | |
|------------------------|----------------------|----------------|----------------------|----------------|----------------------|
| | 2013 | zki ind | 2012 | zki ind | 2011 |
| AKTIBOA GUZTIRA | 20.652.573,78 | 104% | 19.828.368,96 | 99% | 19.950.559,54 |
| Salmentak | 23.968.623,58 | 121% | 19.859.985,98 | 91% | 21.904.719,94 |
| Emaitza | 921.308,64 | 177% | -519.568,38 | 167% | 311.741,68 |
| Finantza gastuak | 430.602,63 | 93% | 461.903,53 | 115% | 400.185,54 |
| Mozkinen gaineko zerga | | | 122.480,37 | 639% | 19.154,90 |
| BAIAI | 1.351.911,27 | 750% | -180.145,22 | 26% | 692.772,32 |
| ROI | 0,07 | 721% | -0,01 | 26% | 0,03 |
| Marjina | 0,06 | 622% | -0,01 | 29% | 0,03 |
| Errotazioa | 1,16 | 116% | 1,00 | 91% | 1,10 |

| DYTSA | | | | | |
|------------------------|----------------------|----------------|----------------------|----------------|----------------------|
| | 2013 | zki ind | 2012 | zki ind | 2011 |
| AKTIBOA GUZTIRA | 14.005.407,00 | 112% | 12.450.306,00 | 92% | 13.601.493,00 |
| Salmentak | 17.932.818,00 | 108% | 16.652.060,00 | 86% | 19.385.478,00 |
| Emaitza | 115.372,00 | 456% | 25.284,00 | 4% | 602.908,00 |
| Finantza gastuak | 312.639,00 | 92% | 338.801,00 | 102% | 333.372,00 |
| Mozkinen gaineko zerga | 192.185,00 | 192% | 100.220,00 | 1310% | 7.652,00 |
| BAIAI | 235.826,00 | 89% | 263.865,00 | 28% | 943.932,00 |
| ROI | 0,02 | 79% | 0,02 | 31% | 0,07 |
| Marjina | 0,01 | 83% | 0,02 | 33% | 0,05 |
| Errotazioa | 1,28 | 96% | 1,34 | 94% | 1,43 |



2011-2012 urte tartean Jesus Oñate y Hermanos enpresak lortzen duten errentagarritasuna txikitzen doala ikus dezakegu, dirua galtzen duen punturaino.

Errentagarritasun ekonomikoaren taula aztertuz ikusten dugu Jesus Oñate y Hermanos S.A. enpresak errentagarritasun negatibo bat erakustearen arrazoi nagusiena marjinan dagoela, urte batetik bestera %70ean txikitzen delarik eta negatiboa izatera pasatzen delarik. Galdu irabazi orrian aztertu dugunez urte honetan enpresak ez du bere jarduerarekin mozkinik sortzen, BAIAl negatibo bat lortzen eta ondorioz marjin negatibo bat.

2013. urtean ordea errentagarritasun ekonomikoa hobetu bakarrik ez aztertutako hiru urteetako emaitzarik onena erakusten du Jesus Oñate y Hermanos enpresak. ROI-en emaitzak erakusten digunez aktiboan inbertitutako moneta unitate bakoitzeko 0'07-ko mozkin lortzen du Jesus Oñate y Hermanos-ek. ROI osatzen duten osagai guztiak hazi direla ikusten dugu, baina gehienbat marjina hazi da. Marjina haztearen arrazoi nagusia enpresak urte honetan BAIAl-en izan duen emaitza hobekuntza da batipat. Salmentek izandako hazkuntzak eta urte honetan lortutako emaitza onari enpresak mozkinak lortzen ditu interesak eta zergak kontuan hartu gabe.

DYTSA enpresarekin gauza bera gertatzen da. 2012. urtean bere jarduerarekin diru gutxiago lortzen du eta salmentak jaisten dira. Hau dela eta lortzen duen marjina ere txikitu egiten da. DYTSAk ordea ez du errentagarritasun negatibo bat erakusten.

DYTSA enpresaren kasuan ordea errentagarritasuna jaisten jarraitzen duela ikusten dugu, nahiz eta modu apalago batean izan.

DYTSA enpresaren kasuan ikusten dugu errentagarritasun ekonomikoaren joera beherakorrak jarraitu egiten duela. Galdu irabazi orrian aipatu dugun bezala enpresak bere jarduerarekin oraindik ere diru gutxiago lortzen du 2013. urtean nahiz eta salmentak handitu egiten diren. Hau dela eta BAIAl txikiagotzen jarraitzen du eta honekin batera errentagarritasun ekonomikoa.



Errentagarritasun finantzarioa

| JOH | | | |
|--|---------------|----------------|---------------|
| ERRENTAGARRITASUN FINANTZARIOA | 2013 | 2012 | 2011 |
| FP | 5.685.251,18 | 4.763.942,54 | 5.347.510,92 |
| Interesa sortzen duten pasiboak | 7.758.049,28 | 8.006.240,77 | 7.935.729,88 |
| FP+int. Sortzen duten P | 13.443.300,46 | 12.770.183,31 | 13.283.240,80 |
| Emitza | 921.308,64 | -519.568,38 | 311.741,68 |
| Finantza gastua | 430.602,63 | 461.903,53 | 400.185,54 |
| Finantza gastua (1-t) | 310033,8936 | 332570,5416 | 288133,5888 |
| EMAITZA+Finantza gastua (1-t) | 1.231.342,53 | -186.997,84 | 599.875,27 |
| r1=Emitza/FP | 0,1621 | -0,1091 | 0,0583 |
| r3=Finantza gastua(1-t)/P* | 0,0400 | 0,0415 | 0,0363 |
| r2=Emitza+Fin.gastua(1-t)/FP+P* | 0,0916 | -0,0146 | 0,0452 |
| (r2-r3) | 0,0516 | -0,0562 | 0,0089 |
| Palanka ratioa=P*/FP | 1,3646 | 1,6806 | 1,4840 |
| APALANKAMENDUA=(r2-r3)P*/FP | 0,0705 | -0,0944 | 0,0131 |
| | | | |
| DY TSA | | | |
| ERRENTAGARRITASUN FINANTZARIOA | 2013 | 2012 | 2011 |
| FP | 2.934.931,00 | 2.319.557,00 | 2.294.275,00 |
| Interesa sortzen duten pasiboak | 5.953.236,00 | 5.795.556,00 | 6.128.379,00 |
| FP+int. Sortzen duten P | 8.888.167,00 | 8.115.113,00 | 8.422.654,00 |
| Emitza | 115.372,00 | 25.284,00 | 602.908,00 |
| Finantza gastua | 312.639,00 | 338.801,00 | 333.372,00 |
| Finantza gastua (1-t) | 225100,08 | 243936,72 | 240027,84 |
| EMAITZA+Finantza gastua (1-t) | 340.472,08 | 269.220,72 | 842.935,84 |
| r1=Emitza/FP | 0,0393 | 0,0109 | 0,2628 |
| r3=Finantza gastua(1-t)/P* | 0,0253 | 0,0301 | 0,0285 |
| r2=Emitza+Fin.gastua(1-t)/FP+P* | 0,0383 | 0,0332 | 0,1001 |
| (r2-r3) | 0,0130 | 0,0031 | 0,0716 |
| Palanka ratioa=P*/FP | 2,0284 | 2,4986 | 2,6712 |
| APALANKAMENDUA=(r2-r3)P*/FP | 0,0263 | 0,0078 | 0,1912 |



Egindako kalkuluek erakusten digutenez baliabide propioen errentagarritasuna txikitu bakarrik ez, errentagarritasun negatibo bat erakusten du enpresak 2012. urtean, hau da, akziodunek dirua galtzen dute.

2013. urtean ordea errentagarritasuna handitzen du, hiru urteetako errentagarritasunik altuena erakutsiz, aldaketa positiboa.

DY TSA-ren kasuan ere 2012.urtean baliabide propioen errentagarritasuna txikitu egiten da baina ez du errentagarritasun negatiboa erakusten. Aipatzekoa da DY TSA enpresak 2011. urtean erakusten duen errentagarritasun altua, urte horretan lortutako emaitzak eragindakoa.

2013. urtean errentagarritasuna handitzen du baina Jesus Oñate y Hermanos enpresak baino modu apalago batean eta baliabide propioen errentagarritasun txikiago bat erakusten du urte honetan.

Aztertutako urteetan zehar eman diren gorabeherak azaltzeko ondorengo formula erabili da.


$$r1 = r2 \pm (r2 - r3) \times \frac{P^*}{FP}$$

Baliabide propioen errentagarritasunean bi faktorek dute eragina:

1. Faktore ekonomikoak
2. Faktore finantzarioak

$$R1 = \frac{MOZKINA}{SALMENTAK} \times \frac{SALMENTAK}{AKTIBOA} \times \frac{AKTIBOA}{PASIBOA} \times \frac{PASIBOA}{FONDO.PROPIOAK}$$

$$R1 = MARJINA \times ERROTAZIOA \times KAUDIMEN.TOTALA \times APALANKAMENDU.RATIOA$$



Errentagarritasun finantzarioaren taulan ikusten dugun bezala faktore ekonomikoa izan da errentagarritasuna txikitzearen arrazoi nagusia, negatiboa izatera heldu delarik.


Enpresak urte honetan ekitaldiko emaitza negatiboa lortu du, -519.568'38 moneta unitatekoa. Errentagarritasun ekonomikoaren azterketan ikusi dugun bezala 2012. urtean enpresak ez dio bere aktiboari errentagarritasunik ateratzen eta dirua galtzen du. Hau dela eta (r_2-r_3) biderkatzaileak eraginda apalankamendu finantzario negatibo bat ematen da urte honetan eta baliabide propioen errentagarritasunak beherakada nabaria jasaten du, bezeroek dirua galtzen dutelarik urte honetan.

2013. urtean ordea aztertutako hiru urteen artean emaitza onena erakusten du Jesus Oñate y Hermanos-en baliabide propioen errentagarritasunak. Arrazoiak faktore ekonomikoetan aurkitzen da aurten ere, enpresak lortutako emaitza onagatik batez ere. Enpresak 2013. urtean izandako fakturazio altuak marjin handiago bat izatea ekarri du eta errotazioa ere hazi egin da 2013. urtean, inbertitutako moneta unitate bakoitzeko gehiago saltzen duelarik.

$r_2 > r_3$ denez enpresak apalankamendu finantzarioaren bitartez lortzen duen errentagarritasuna nabari handitu da.

DYTSA enpresaren kasuan ere faktore ekonomikoa izan da baliabide propioen errentagarritasuna txikitzearen arrazoi nagusia. 2012. urtean errentagarritasun finantzario globala zorpetzearen kostura asko hurbildu da eta ondorioz (r_2-r_3) biderkatzailea txikitu egin da. Honek apalankamendu finantzarioaren eragina txikitu du, lortzen duen etekina murriztuz. Nahiz eta asko txikitu den ez du errentagarritasun negatiborik erakutsi 2012. urtean.

DYTSA enpresan ere hobekuntza bat ikusi dezakegu 2013. urtean baliabide propioen errentagarritasunean baina ez da hain nabaria izan eta Jesus Oñate y Hermanos-ek erakusten duenaren azpitik kokatzen da.



HIRUGARREN ZATIA :
LABURPENA ETA
ONDORIOA



ONDORIOA

Enpresaren egitura aztertzen badugu tamaina desberdinetako bi enpresen aurrean gaudela konturatzen gara. Jesus Oñateren aktiboa eta salmenta bolumena DYTSA enpresarena baino handiagoa dugu. Aktiboa aztertuz balio bertikal handiena erakusten duten partidak ibilgetu materiala, makinak batez ere, izakinak eta bezeroak dira bi enpresetan.

Ondare garbi txikia duen enpresa dela konturatzen gara eta finantzazioaren gehiengoa kanpo finantzaketaz lortzen dela, hain zuzen, %70a. DYTSA enpresaren kasuan zorpetzea oraindik eta altuagoa da, %80koa.

Galdu irabazi orria aztertzerakoan 2012. urtean ekitaldiko emaitza negatibo bat erakutsi duela ikusi dugu, aztertutako hiru urteetatik urterik txarra. Bi enpresen ustiapen emaitza nabari jaisten da 2012. Urtean baina jaitsiera nabariena Jesus Oñate y Hermanos enpresak izan du bere jarduerarekin dirua galtzera pasatzen delarik.

Urte honetan salmentak txikitu egiten direla ikusten dugu, ustiapeneko gastuak ordea salmentekiko balio handiagoa erakustean ustiapeneko emaitza negatibo bat ematen da. 2013. urtean salmenten hazkuntzak bultzatuta errekupeazio handia ematen da aurreko urteko ekitaldiko emaitza negatiboa estali ahal dutelarik. Enpresak gehiago saltzen du eta gainera hobeto, ondorioz merkataritza marjin gordina hazi egiten da eta enpresaren ekitaldiko emaitza positiboa da urte honetan. Aldaketa positiboa.

Enpresak errotazio fondo positibo bat aurkezten du hiru urteetan nahiz eta 2012. urtean txikiagotu egiten den, 2013. urtean berriro ere hazteko. DYTSA enpresaren kasuan errotazio fondo negatiboa dela ikus dezakegu bestelako pasibo korronteen eraginez. DYTSA enpresak erakusten duen errotazio fondoaren bilakaerarekin konparatuz esan dezakegu Jesus Oñate y Hermanos enpresak segurtasun finantzarioa adierazten duela, bere aktibo korronteen zati bat epe luzeko kanpo finantzazioarekin finantzatzen duelarik.


Aurrekoarekin lotuta kaudimen ratio on bat erakusten du enpresak, DYTSA-k ez bezala, epe laburreko zorrei aurre egiteko gai delarik. DYTSA enpresarekin konparatuz ikusten dugu ratioaren balioa antzerakoa dela bi enpresetan, 0'5 ingurukoa bientzat. Hau dela eta ratioaren emaitza sektoreko batz bestekoaren inguruan dagoela ondoriozta dezakegu.

Diruzaintzaren ratio baxuak deitzen du atentzioa, DYTSA lehiakide zuzenaren emaitzarekin konparatuz oso baxua baita. Diru-fluxu taularen irakurketari esker honi azalpen bat ematea lortu da. Urtero asko inbertitzen duen enpresa baten aurrean gaudela konturatzen gara eta inbertsio hauen norakoa aztertzen badugu gehienbat makineriara zuzenduta daudela konturatzen gara.

Ikus dezakegu baita ere instalazio teknikoetan inbertsio nabari bat dagoela.

Urte txar honekin bat eginez ikusten da enpresak desinbertsioetara jotzen duela likidezia faltaren aurrean inbertsioak egiten jarraitu ahal izateko.

Bi enpresen arrisku finantzarioa aztertu eta gero ondorioztatu dugu Jesus Oñate y Hermanosek egoera ona erakusten duela, inbertsioei eta hauek finantzatzean sortzen diren zorrei aurre egiteko kapazitatea duelarik.



Errentagarritasun ekonomikoari dagokionez V joera erakusten duela ikusten da, puntu baxuena enpresaren urte gogorrenarekin bat egiten duelarik eta dirua galtzeko punturaino iristen delarik. 2013. urtean ordea errentagarritasun ekonomikoa hobetu bakarrik ez aztertutako hiru urteetako emaitzarik onena erakusten du Jesus Oñate y Hermanos enpresak. DYTSA enpresaren kasuan ordea errentagarritasuna jaisten jarraitzen duela ikusten dugu, nahiz eta modu apalago batean izan. DYTSA enpresaren kasuan ikusten dugu errentagarritasun ekonomikoaren joera beherakorrak jarraitu egiten duela. Galdu irabazi orrian aipatu dugun bezala enpresak bere jarduerarekin oraindik ere diru gutxiago lortzen du 2013. urtean nahiz eta salmentak handitu egin diren. Hau dela eta BAIAl txikiagotzen jarraitzen du eta honekin batera errentagarritasun ekonomikoa.

2012ko emaitza salbuespen bezala hartuz Jesus Oñate y Hermanos-ek errentagarritasun ekonomiko positibo bat erakusten du, finantzaketa eta politika fiskala kontuan hartu gabe inbertitzen duen moneta unitate bakoitzeko errentagarritasuna lortuz.

Errentagarritasun finantzarioari dagokionean bi enpresek joera berdina jarraitu dute, 2012. urtean errentagarritasuna txikitu egin delarik 2013. urtean berriro ere hazteko. Jesus Oñate y Hermanos enpresaren kasuan 2012. urtean akziodunek dirua galtzen dute.

2013. urtean ordea egoeraren hobekuntzarekin errentagarritasun finantzarioa asko hazten da eta errentagarritasun positiboa ez ezik aztertutako hiru urteetako errentagarritasun finantzarioak altuena erakusten du DYTSA enpresaren gainera ipiniz. Aldaketa positiboa urte tarte honetan ematen dena, errentagarria ez izatetik errentagarritasun altuena lortzera pasa da eta DYTSA enpresak baina emaitza hobek erakutsiz gainera, aipatu bezala 2013. urtea izandako bilakaera positiboagatik bultzatua gehienbat.



Gerentea eta zuzendari finantzarioarekin izandako bileran analisisian zehar lortutako ondorioak kontrastatzeko aukera eduki nuen. Azaldu zidatenez azken urteetan pieza handiagoak ekoiztera zuzendu dira gehienbat eta honek exigentzia maila handiagotzea ekarri du merkatu berrietara zabaltzean.

Enpresak erakusten duen zorpetze altua batez ere batuz besteko biltegitratze heldze aro altuak dakar. Enpresak produktua ekoizten hazten denetik likidezia berreskuratzen duen arte pasatzen den denbora tartea oso altua da eta ondorioz bitartean enpresa funtzionatzen jarraitzeko finantzazioa beharrezkoa dute.

Kreditu erakundeekin duten erlazio ona azpimarratzen zuen enpresako zuzendari finantzarioak, goian aipatutakoagatik ezinbestekoa. Berak esaten zuenez beti ondo aurkeztutako finantzazio eskaerak proposatu dizkiote kreditu erakundeei eta ez dute inoiz arazorik izan finantzazioa lortzeko orduan. Gainera esaten zuen kreditu erakunde berdinekin lan egin izan dutela beti, nahiz eta krisi aurreko garai oparoetan beste kreditu erakundeekin interes tasa baxuagoak lortu ahal izan. Honek kreditu erakundeek enpresarengan konfiantza maila handiagotzea ekarri du. Departamentu finantzarioko buruak esaten zuen bezala:

“Bankuak behar ditugu”

2012. urteko ekitaldiko emaitza negatiboari buruz galdetzean gerenteak baieztatu zuen krisi garaian izandako urterik zailena izan zela, honen efektua gogor pairatu zutelarik. Kontatzen zuenez azken urteetan salmentak antzera mantendu ziren bitartean ustiapeneko gastuen balio bertikala gora bakarrik egiten zuen, 2012. urtean dirua galdu zutelarik.


2013. urtean salmenten hazkuntzari dagokionean kontatzen zuen 20 milioi euroko salmentak espero zutela eta 24 milioi fakturatu zituztela azkenean.

Diru-fluxu taulak ikusten denez makinerian inbertsio esfortzu handia egiten da. Honi buruz galdetzean enpresako gerenteak kontatzen zuen betiere bezeroa asetzeko nahian, puntako makinak behar dituztela eta hauetan egiten den inbertsio esfortzua ikaragarri handia dela, gutxi gora behera milioi bat eurokoa urtero. Bere hitzetan:

“Ez ginateke posizio honetan egongo gure makinengatik ez balitz”

Inbertsioa instalazio teknikoetara ere zuzenduta zegoela esan nion eta azaldu zidanez alokatu berri zuten biltegi berri baten ondorioz zen. Bertan biltegi kaotiko bat ezartzeko asmoa dute, dena desordenaturik aurkitzen den biltegi bat baina informatikoki kontrolaturik, FIFO erabiliz produktuak ateratzen dituen. Gainera taulak erakusten duen bezala enpresak dibidenduak banatzen ditu, 2013. urtea salbuespen bezala hartuz 2012ko ekitaldiko emaitza negatiboa dela eta.

2012. urtean nahiz eta aztertutako urterik gogorrena izan inbertsioak egiten jarraitzen dutela ikusi dugu horretarako desinbertsioak eginez aktibo finantzarioetan. Honi buruz galdetzean esan zidaten 2008. urtean etortzeaz zeuden garai txarrak aurreikusita kontingentzia plan bat ipini zutela martxan finantza inbertsio batzuk eginik. 2012. urtean egoera kaxkarra zela eta diru hau atera egin zuten likidezia faltarik ez izateko. Krisi urteetan pairatutako egoera benetan gogorra izan zela azpimarratzen zidaten baina argi zeukatela pertsonala ukitzen zen azkenengo aktiboa zela. Beraien ustez filosofia honek langileek enpresan konfiantza edukitzea ekarri zuen eta beraiek esaten zuten bezala hori igarri egiten da motibazioa eta fideltasuna handitzen baita. Langileen konfiantza soilik ez bankuena ere handitu zela aipatzen zuten.




Analisi ekonomiko finantzarioa bukatuta eta emaitzak DYTSA enpresarekin konparatu eta gero esan dezakegu inguruneari egokitzen jakin duen enpresa dela Jesus Oñate y hermanos, krisi garai gogor hauetan aurrera irtetea lortu duena lan asko egiteaz gain erabaki egokiak hartuz.

Erabaki hauek eta beraien produktuan lortutako desberdintze mailak, betiere bezeroa asetzeko asmoarekin, enpresa sektoreko lidergo postuetaraino eraman du, sektoreko enpresa garrantzitsuenetariko bat bihurtu delarik.

Gainera gerentea eta zuzendari finantzarioarekin izandako bileran etorkizunari begira optimistak direla aipatu zidaten. Testuinguru makroekonomikoan hobekuntza antzematen dela zioten. Beraien aburuz egoera txarrena dagoeneko pasatu da, lan ikaragarri handiarekin aurrera ateratzea lortu dutena, eta esaten zuten bezala beharrezko suerte ukitu batekin ere bai.

Egindako automozio sektorearen azterketan eta enpresaren analisi ekonomiko finantzarioan oinarrituz enpresak etorkizunari optimismoarekin begiratu behar diola baieztatzen auzartuko nintzateke.



BIBLIOGRAFIA

- “Kontabilitate plan orokorra-Enpresa txiki eta ertainen kontabilitate plan orokorra.”
2010, Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua.
I.S.B.N.: 978-84-9860-430-6 Lege gordailua: BI-2.389-2010
- “Curso experto en valoración de Empresas, Gestión y Análisis basado en valor.”
Universidad de Almería.
- SABI plataforma.
- Jesus Oñate y Hermanos S.A. urteko kontuak
- Decoletaje y tornillería S.A. urteko kontuak
- “Observatorio industrial del sector de fabricantes de equipos y componentes de automoción”
Madrid, 2012, Federación de industria de CCOO.
I.S.B.N.: 978-84-695-3965-1
- ANFAC memoria anual 2013.
<http://www.anfac.com/documents/tmp/memoria2013.pdf>
- “Estrategi zuzendaritza: Hazkundera eta garapena”
Euskal Herriko Unibertsitatea 2012/2013
- “Enpresaren ekonomiarako sarrera”
Egileak: Jon Landeta Rodríguez eta Sara Urionabarrenetxea Zabalandikoetxea.
- “Zuzendaritza estrategikoa. Kontzeptu orokorrak”
Euskal Herriko Unibertsitatea
- “Aproximación a la historia de la industria de equipos y componentes de automoción de España” José María Ortiz-Villajos Universidad Complutense de Madrid.

OHARRA

Analisi ekonomikoa aurrera eramateko orduan Kontabilitate analisia irakasgai erabili genituen apunteetan oinarritu naiz. Baita egunkarietan edo telebistan automozio sektoreari buruz kontatzen zutena kontuan hartu da.

ESKERRAK

Jesús Oñate y Hermanos S.A. enpresari beraiekin edukitako bileran eduki nuen tratua onagatik eta Edurne Aldazabal tutoreari nituen duda guztiei erantzun bat emateagatik.

